

ASTELEHENeko Goienkaria

2008ko maiatzaren 26a > Astelehenetik III. urtea > 191. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Oraindik badugu ikasi beharreko ikasgaia: errekkak errespetatzearena"

Iñaki Antiguedad
Hidrologoa > 06



G2a

Supagroup
taldearen indarra
Oñatin > 23

ARRASATE
EkoZinemaldia: zor ekologikoa
aztergai Kulturaten > 10

KIROLA
Patxi Bedia, Numanciako
fisioterapeuta arrasatearra > 20

KULTURA
'Egileor' bertsolaria gogoan izan
zuten atzo Elosun > 24

ENPRESA > KOOPERATIBAK

Ampo, Mondragon Taldeak kanpo

Irizarrek bide bera
har dezake
eguenean > 05

KIROLA > AIZKORRI

Aizkorri gora korrika 400 lagun

Kilian Jornet eta Corinne Favre izan genituen irabasle atzo jokatutako Aizkorriko maratoiaren VII. ekitaldian. 390 lagun iritsi ziren helmu-gara eta Aritz Kortabarria arrasatearra izan zen lehen debagoiendarra Zegaman. > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrikzeta > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta
Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32



GORPUZTI EGUNA San Miguel eta Apostoluak Oñatiko kaleetan atzo eguerdian egindako prozesioan.

LEIRE KORTABARRIA

JAIAK > OÑATI

Prozesio dotorea izan zuten atzo oñatiarrek

ZERURA BEGIRA Euri zaparradek etenalditxoa egin zuten domeka goizean prozesiorako

BISITA GIDATUA Aurretik egiteko antolatutako bisita gidatuan 30 bat lagunek hartu zuten parte

Egun handia izan ohi da Oñatin Gorpuzti eguna eta honakoan ere horrela izan da.

Eguraldia zen herriaren kezka nagusia, baina hodeiek prozesioa errespetatu zuten. Jendetza bildu zen herriko kaleetan San Miguel, Apostoluak eta prozesioa osatzen duten 15 irudiak ikusteko.

Udaletik Gorpuzti jaiak ondo igaro direla adierazi dute, 'normaltasun osoz'. Balorazio positiboa egin dute. > 09

DEBAGOIENA > EGURALDIA

Euri piloa izan dugu asteburuan

Zapatuan eta domekan ekaitz bortzitzak izan genituen Debagoienean. Atzo domeka euri jasen ondorioz, urak gainezka egin zuen Aretxabaletako Durana kalean. Kalte arinak izan dira. > 04



ARETXABAleta Irudian, herri erdigunea, atzo arratsaldean.

ANGEL ZUBILLAGA





ATCORE Mahai informatiboa jarri zuten Atcore elkarteko kideek atzo Oñatin; 50 emaile lortu zituzten goiz osoan zehar.

LARRAITZ ZEBERIO

OSASUNA > BASOEN INVENTARIOA

Emaileak, bizia lortzeko ahaleginetan han eta hemen

KANPAINAN Birika, bihotz, pankreas edo giltzurrun emaileak lortzeko lanean dira Atcore eta Alcer elkartek, besteak beste

EDU MENDIBIL > OÑATI

Hainbat ikerketaren arabera, organo emaile bakoitzak, bataz beste, 30,8 urteko bizia ematen dio haren organoa jasotzen duen gai-xoari. Emaile baten organo guztiek transplantatzera gero, irabazitako biziak 56 omen dira. Pentsatzeko ematen duten datuak, zalantzak gabe. Hori da hain zuen, Munduko Osasun Erakundeak atzo zabaltzen saiatu zen mezua. Organo emaileen nazioarteko eguna ospatu zuten atzo, mundu zabalean. Euskal Herriari dagokionez, organo ema-

ATCORE Ekainaren lehen asterako kanpaina bat egingo dute Gipuzkoa osoan, Bihotzeko Egunarekin bat eginez

Organo emaile bakoitzak, bataz beste, 30,8 urteko bizia ematen dio haren organoa jasotzen duen gaixoari

le kopurua handia da, baina oraindik jende gehiagoren gana heldu beharra dagoela azpimarratzen dute elkartea ezberdinako ordezkariekin.

Gloria Uriarte arrasatearra Alcer, giltzurrun gaixoen eta transplantatuen elkarteko kidea da. Orain dela 15 urte jaso zuen giltzurrun berria, transplante bati esker. Gaur egun, 65 urte dauzka Uriartek eta biziak guztiz normala egiten duela diosku; "Biziak kalitatean jauzi handia egin nuen giltzurrun berria jaso nuenean. Ordura arte makina

ODOL PREMIA Hainbat adituren arabera, auto istripuen beherakadak dohaintzen beherakada ekarri badu ere, odol premiak handia izaten jarraitzen du

bati lotuta bizi nintzela esan daiteke. Bi urte eta zortzi hilabete eman nituen astean hiru aldiz diaisia egiten eta oso gogorra zen. Atzera begiratuta, ezinezkoa iruditzen zait gaur nagoen bezala egotea". Dialisi saio bakoitzak lau ordu inguruko iraupena izaten du hainbat kasutan. Orain, lau hilabetetik behin kontrola egiten diote Uriarteri, eta urtero azterketa sakonago bat egiten diote.

Organoren bat jaso duten guztiek bezala, Gloria Uriartek ere deia zabaldu nahi dio jendeari,

odol emaile egiteko animatuz: "Nire inguruau, hurbilekoak eta, segituan animatu ziren emaile egiteko orduan... Azken baten, gertuan horrelako kasuren bat tokatzen bazaizu, errazagoa geratzen da sentsibilizazio handiagoa izatea gai guzti hauekiko".

Arrasaten aspaldi egin ez badute ere, Alcer elkartekoek sentsibilizazio kanpainak egin izan dituzte. Uriarteren kasuan, harreman handiagoa du Arabako elkartekoekin, Gipuzkoakoarekin baino. Izan ere, Gasteizera joan izan da gehiagotan; medi-

Euskal Autonomia Elkarteak dohaintza kopururik handiena izan zuen Espainiako Estatuan. Mila bitzanle bakoitzeko 48,4 emaile izan ziren 2006an

**Emaile gehiago behar
dira, gaixo guztien
beharre erantzuna
eman ahal izateko**

kuekin hitzordua Gasteizen jarri
izan diote. Dena dela, berak azpi-
marratzen duen moduan, Araba-
ko zein Gipuzkoako elkartea
elkarlanean dihardute eta nahi
duenak batera edo bestera jo
dezake. Hauek dira interesa-
tuendako telefonoak: 943 46 90 477
(Alcer Gipuzkoa) edo 945 23 19 95
(Alcer Araba). Edozein modutan
ere, emaile egiteko asmoa dute-
nek ibarreko edozein farmazia-
ra jo dezake, informazio orriak
eskuratu ahal izateko. Era bere-
an, Debagoieneko herri gehiene-



Irudian, Oñatin egindako odol ateraldi bat.

JOSETXO ARANTZABAL

tan, urtean zehar ekitaldiren bat
edo beste egiten dute informazioa
herritarrei helarazteko.

Alcerreko iturriek emandako
datuen arabera, 2006. urtean Eus-
kal Autonomia Elkarteak dohaintza
kopururik handiena izan zuen
Espainiako Estatuan. Mila
bitzanle bakoitzeko 48,4 emaile izan
ziren urte horretan Bilboko Guru-
tzetako Ospitalean 130 giltzu-
rrun-transplante eta 56 gibel-
transplante egin zituzten.

Atcore elkarteko kideek
mahai informatiboa jarri zuen
atzo goizean Oñatin. Bihotz eta
birika gaixoak eta transplantau-
tak batzen ditu Atcorek eta
haien mezua ere garbia da: emaile
gehiago behar dira, gaixo guztien
beharre erantzuna eman
ahal izateko. Atzoko jardunal-
dian, Oñatin, emaitza onak lortu
zituztela adierazi zigun Luis
Balentziaga Atcoreko ordezkariak.
Hamabost urte inguru darama
elkartean lanean. Pozik zegoen
Debagoienean jasotako eran-
tzunarekin. Ekainaren lehen
asterako kanpaina bat egingo
dute Gipuzkoa osoan, Bihotzeko
Egunarekin bat eginez eta aben-
duan beste hitzordu garrantzitsu
bat izaten dute urtero: abenduan
ren 3an 41 urte beteko dira Chris-
tian Barnard medikuak lehen
bihotz transplanttea egin zuen-
tik. Azken urteotan ekitaldiak
antolatu izan ditu Atcorek data
esanguratsu horren inguruan.

ODOL PREMIA AZKENALDIAN

Hainbat adituren arabera, auto
istripuen beherakadak dohain-
tzen beherakada ekarri badu ere,
odol premia handia izaten jarrait-
zen duela azpimarratu dute odol
emaileen elkartek. Azken eguna-
tonan ere odol ateraldien kopu-
ruak gora egiteko deia egin dute
eta antza jendeak ondo erantzun-
du. Datozen egunotan hainbat
odol ateraldi egingo dituzte Deba-
goieneko hainbat herritan: Are-
txabaletan gaur, osasun zentroan,
16:00etik 20:00etara; Bergara
eguaztenean, hilaren 28an,
18:00etan daukate hitzordua,
Seminarioan, ohi bezala; Oñatin,
azkenik, ekainaren 6an egingo
dute odol ateraldian, Txantxiku
Ikastolan, 18:00etan.

Luis Balentziaga > Atcore elkarteko

"Organo dohaintza kontuetan sekula ez da nahikoa, baina emaile asko daude EAEn"

E.M. > OÑATI

Euskadiko Bihotz eta Birika gaixo-
en eta transplantatuen elkartea
Atcore du izena. Araban, Bizkaian
eta Gipuzkoan 150 bazkide inguru
dituzte. Atzo, domeka, elkarteko lau
lagun izan ziren Oñatin, informazioa
banatzen eta emaileak lortze-
ko ahaleginetan. Luis Balentziaga
65 urteko azkoitiarrak eman zigun
Oñatin egindako lanaren berri.
Orain dela 15 urte bihotz transplan-
tea egin zioten Balentziagari. Jaki-
na, bizia erabat aldatu zitzaien eta
jendea animatu nahi du organo
emaile egiteko.

Goiz osoa eman duzue Oñatin, Gor-
puzti eguna aprobetxatuz. Zelan
joan da goiza?

Oso ondo. Gaur [domeka] Oñatin
eta Zornotzan, Ibilaldian, egon gara
Atcoreko kideok, jendeari emaileen
gaineko informazioa banatzen. Oña-
tira lau lagun etorri gara eta balorazioa
gutziz positiboa da, 50 organo
emaile lortu ditugulako. Bihotza, pan-
kreas, birikak... Jendeak aukera zaba-
la du emaile bihotzko orduan eta
tramiteak errazak dira oso. Jende
gutzia animatu nahi dugu emaile
bihotzko, azken baten gaixo askoren
bizitza erabat aldatzeko aukera
dago-eta.

Orokorean, zein da jendearen kez-
ka nagusia emaile bihotzko
orduan?

Denetik dago, baina askok zera
komentatzen digute, familian, gura-
soek-eta izandako gaixotasunak. Eta
horrelakoak oztopo diren emaile egite-
ko orduan... Baino edozein izandai-
teke emaile. Jendeak emaile egiteko
eman beharreko urratsak zeintzuk
diren jakin nahi du eta alde horretatik
erraztasun guztiak ematen dizkio-
gu: baimena ematen duten momen-
tutik, handik hilabetera bidaltzen die-
gu emaile direla ziurtatzen duen
txartela. Ez dago bestelako misterio-
rik. Edozein modutan, zalantzaren bat
dutenek gure webgunera jo dezake-
te: www.atcore.org

Euskal Herrian, zein egoeratan gau-
de emaile kopuruari dagokionean?

Ondo, ezin gara kexatu. Jendeak,
orokorean, kontzientzia handia du
organo transplantteen gainean eta
oker ez banago, Espainiako hiruga-



Luis Balentziaga azkoitiarra, atzo Oñatin.

LARRAITZ ZEBERIO

Zuri, bizitza erabat aldatuko zitzai-
zun orain dela 15 urte...

Bai, horixe. Gironako 19 urteko
gazte baten bihotza transplantatu
ninduten Valdecillan, Santanderen.

Ez, ez dut haren familia ezagutzen...

Normalean hala izaten da. Edozelan
ere, hilda bezala nengoen transplan-
tea jaso aurretik eta harrezkero ber-
piztu egin nintzela esandaiteke. Gaur
primeran nabil. 65 urterekin, urtean
hamar bat aldziz egiten dut Ondarre-
tako hondartzatik Santa Clara irlara
joan-otorria, igerian. Ez da gutxi.

Ekainerako ekitaldiak iragarri ditu-
zue.

Ekainaren 3an Bihotzaren Eguna
da eta aste horretan hainbat ekitaldi
(hitzaldiek eta bestelakoak) egingo
ditugu Euskal Autonomia Elkartean.

Deskontu bereziak!!

Laster bertan zabalik:

UME ITURRIOTZ



Iturriotz 23 ARRASATE • Tel: 943 77 02 76

EGURALDIA > IRAGARPENA

Uda nahasia izango da, tenporen eta kontratenporen arabera

Maiatzaren 14tik 22ra egindako eguraldia hartzen dute kontutan iragarpena egiteko

Udaberrian neguko giroa egin du, eta ondorioz, uda nahasi samarra izango da

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Udaberrian egonda, tenporen eta kontratenporen arabera, udan egingo duen eguraldiaren iragarpena egiteko garaia heldu da. Guztiek ere, ez diote kasu handiegirik egiten tempora eta kontratenporei; baina, hauengan fedea dutenendako iragarpena egin digu Pello Zabalak: "Uda nahasia izango da, ez da beroegia izango, ezta eguzkitsuegia ere". Dena den, esperantzarako tarte utzi digu, izan ere, temporek hartzen duten lau ilargi aldatetako bat, jeneralean, ezberdinaz izaten da, "eta horrek, egun batzutan behintzat, eguraldi ona egingo duela esan gura du".

NAHASIA IZANGO DA
Maiatzaren 14tik 22ra arteko eguraldia hartzen da kontutan ten-



Euri jasak zirela eta, Diputazioko langileek Elgetarako bidean errepidea garbitu behar izan zuten zapatuan. LARRAITZ ZEBERIO

poren eta kontratenporen iragarpena egiteko orduan. "Aste osoan ez du egun garbirik egin. Era berean, ez du egun osasuntsurik egin. Gainera, eguzkia egin duenean, egun sargoriak

izan dira, eta azken orduetarako ekaitza egin du", esan digu Pello Zabalak. Euririk egin ez zuen egun bakarra, maiatzaren 20a izan zen. Udarako iragartzen duten eguraldia, neguan egin

duen udaberriko giroaren ondorio da. "Neguan eguraldi nahiko ona egin zuen, eta udaberrian egin du negu giroa, eta horren ondorioz, uda partean giro nahasiago egingo du", dio Zabalak.

HEZKUNTZA > PROIEKTUEN AURKEZPENA

Praktiketako ikasleendako bi proiektu berri aurkeztuko dituzte Miguel Altuna Institutuan

Aurkezpen ekitaldia
Miguel Altunako
areto nagusian
egingo dute, bihar,
martitzena, 11:00etan


M.B. > BERGARA
Orga eta garabien trebakuntza eta Lantokietako prestakuntzaren jarraiaren mugikorren bidez dira Miguel Altuna Institutua aurkeztuko dituen proiektuak. Enpresekin bitartekari lanak egiten dituen Joxu Arana irakasle-

ak eman dizkigu bi proiektuen inguruko xehetasuna. "Orga eta garabien trebakuntzari dagokionez, simulagailu batzuen bidez, orgak eta garabiak erabiltzeko aukera izango dute, bai gure ikasleek, eta bai, enpresatik datozten lagunek ere".

PRAKTIKEN KONTROLA

Bigarren proiektuak, enpresean praktikak egiten dituzten ikasleen kontrola, mugikor bidez egiteko aukera ematen du. "Ikasle bakoitzak mugikor bat eroango du, eta bertan dagoen galdegiari erantzun beharko dio. Orain arte, eskuz egiten genuena, mugikor bidez egiteko aukera emango digu. Proiektu honetan lanean hasi gara dagoeneko, hain zuzen, 35 ikasleren".

Bi proiektuen aurkezpen ekitaldia, bihar egingo dute, institutuko areto nagusian, 11:00etan hasita. Bi proiektuen erakustaldia egingo dute, eta txostenak banatuko dituzte.



Orga eta garabien trebakuntzarako simulagailuak erabiliko dituzte. MIGUEL ALTUNA



ANGEL ZUBILLAGA

Durana kalean urak gainezka egin zuen

Atzo arratsaldean botatako ekaitz gogorren ondorioz, estoldek ezin izan zuten Aretxabaletan ur guztia xurgatu. Ondorioz, urak gainezka egin zuen herriko zenbait kaletan. Ertzaintzak adierazi zuenez, Durana kalean izan ziren arazo nagusienak. Suhiltzaileak berehalan joan ziren eta garaje eta baxuetara zabaldutako ura kendu zuten. Zorionez susto batean geratu zen guztia; Ertzaintzak adierazi zuen ez zela aparteko arazorik izan. Edonola ere argazkiak ikusgarriak dira.

BERGARA

Belar artifiziala jarriko dute Ipintzan

Amenabar enpresari adjudikatu dizkiote lanak, 698.000 eurotan

E.M. > BERGARA

Bihar, martitzena, Bergarako Udaleko eta Amenabar enpresako ordezkariek bilduko dira, Ipintzako futbol zelaian egin beharreko lanen hasiera zehazteko. Lehenbailehen hasiko dituzte belar artifiziala jartzeko lanak, abuztuaren 20rako futbol zelaia gertu egotea baita helburua. Esan bezala, Udalak Amenabarri adjudikatu dio proiektua, 698.000 eurotan. Bi urteko garantia eta urteko mantenu orokorra ziurtatu du Amenabarrek, aurkeztutako beste proiektuen aldean.

OÑATIN, GAURTIK

Bestalde, gaur bertain hasiko dituzte Oñatiako Azkoagain futbol zelaia birmoldatzeko lanak. Han ere belar artifiziala izango dute hurrengo denboralditik aurrera. Besteak beste, sei aldagela jarriko dituzte sarre-rra ondoan, harmaila luzatuko dute eta eserleku berriak jarriko dituzte. Abuztuaren amaieran bukatuko dituzte lanak.

EKONOMIA > KOOPERATIBAK

Mondragon Taldetik irtetea erabaki dute Ampoko langileek

Egubakotzko batzarrean, Azkoitian, 295 lagun irtetearen alde azaldu ziren, 53 kontrako bota eman zuten eta 27k zuri bozkatu zuten

EDU MENDIBIL > BERGARA
Idiazabalgo Ampo-Poyan kooperatibak Mondragon Taldea uztea erabaki zuen egubakotzean. Konseilu Errektoarek egindako proposamenari langileek babes sen-

doa eman zioten: 295 lagun irtetearen alde azaldu ziren, 53 kontrako bota eman zuten eta 27k zuri bozkatu zuten. Langileen %90ak hartu zuen parte Azkoitiko Baztartxo aretoan egindako

batzar nagusian. Mondragon Taldea utzi arren, kooperatiba izaten jarraituko duela berretsi zuten Ampo-Poyaneko langileek. Kooperatibako kideen arabera, Amporen eta Mondragon Tal-

dearen gestio ereduek talka egi- ten dutelako hartu dute erabakia. "Pertsonetan oinarritutako kude- aketa eredua" nahi dutela azaldu zuen Ignacio Estensoro Ampo-Poyaneko koordinatziale nagusiak. Haren hitzetan, "aipatutako gestio modelo hori baliagarria dela erakutsi dugu, enpresa barruko jardunean zein merka- tu konpetentzian, langileei eta bezeroei egoki erantzunez". Kol- do Saratxaga Irizarreko ardura- dun ohiak bere garaian bultza- tutako modeloari eustea da Ampo-Poyanen helburua. Esten- sorok zera gaineratu zuen: "Mon- dragon Taldearen diciplinarik gabe, gure bide propioa eginez, efizienteagoak izan gaitezkeela uste dugu. Sozialki ematen ditu- gun laguntzen arloan, esaterako, lehen bezain besteko laguntza ematen jarraituko dugu, bai Eus-

kal Herrian, bai nazioartean, Goierri eta Urola bailarenengatik are eta gertuago egonez etorki- zunean".

IRIZARREK BIDE BERA HAR DEZAKE

Mondragon Taldetik adostuta- ko akordiorik gabe ateratzen den lehenengo kooperatiba bila- katzen da Ampo-Poyan. Ziurre- nik, Irizarrek bide bera jarrai- tuko du; Irizarrek langileek egunean egingo dute batzarra erabakia hartzeko.

Mondragon Taldeko iturriek batzarren subiranotasuna erres- petatzen dutela adierazi dute. Urte- ko prentsa agerraldia egingo du Mondragonek bihar, martitzena. 2007ko ekitaldiko urteko txostenetan eta emaitzak aurkeztuko dituzte. Bestetan baino ikusmin handia- goa piztu du agerraldiak, azken gertakariak direla eta.

GERTAKARIAK > SEXU ERASOAK

Salaketa bat eta atxilotu bat, sexu erasoak leporatuta

Oñatin, 42 urteko gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak maiatzaren 15ean, ustezko bortxaketa bat leporatuta

tua ikertzen ari direla. Hala, ustezko delitua egin zuen gizonezkoaren bila dabil Ertzaintza. Delituaren ezaugarriak kontuan har- tuta, biktimaren daturik ezin dutela eman jakinarazi du Ertzaintzak. Oraindik inor atxi-

lotu ez duten arren, Ertzaintzak Bergaran gertatutako ustezko delitua ikertzen dabiltzala gogo- ratu du.

ATXILOTU BAT OÑATIN

Sexu erasoak direla medio, Oña- tin maiatzaren 15ean gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Emakume bat sexualki bortxa- tzea leporatuta atxilotu zuten gizonezko. Ustezko delitua ere Oñatin bertan gertatu zela jakin- arazi du Ertzaintzak. Atxilotu- takoa 42 urteko gizonezko da, baina Ertzaintzak ez du beste daturik eman.

BI KASUEN ARTEKO ERLAZIOA

Bergarako eta Oñatiko kasuak erlazioa izan dezaketen edo ez ezin du esan oraindik Ertzain- tzak. Oñatiko kasuan, gizonezkoa atxilotuta dago eta bortxaketa delitua leporatzen diote.

Bergarako kasua, osteria, geroago gertatu zen. Ertzaintza- ren komunikazio sailak adiera- zi du ez dirudiela pertsona bera denik, baina oraindik ezin du datu hori konfirmatu. Hain zuzen, bi herrietan gertatutako- ak ikertzen ari direla adierazi dute komunikazio saila.

A.E. > BERGARA

Azken egunotan ibarrean hain- bat gertakari izan dira. Bergaran eta Oñatin, esaterako, sexu era- soekin lotutako gertakariak izan dira; gainera, Oñatiko kasuan, atxilotu bat dago gertaera horiek direla tarteko.

Bergaran, osteria, hiru ema- kumek sexu erasoak jasan dituz- tula zabaldu da herrian. Hori dela-eta, beldurra zabaldu da Bergarako herritarren artean; batez ere, emakumezkoen artean. Ertzaintzarekin harremanetan jarrita, sexu erasoak direla-eta salaketa bat jaso dutela adierazi dute. Bainaz dute beste bi ger- taeren berri eman.

TRENBIDE ZAHARREAN

Ertzaintzak aditzera eman due- nez, maiatzaren 12an izan ziren gertakariak. Antza denez, gizo- nezko batek emakumezko bat eraso egin zion. Gizonezko ema- kumezko bortxatzen ahalegin- du zen. Ustezko gertaera Berga- rako trenbide zaharrean izan ziren, Murinondo auzoan. Jakin denez, beste bi saiakerak ere leku berean izan ziren; hau, da, tren- bide zaharrean. Bainaz ustezko gertaera horien salaketarik ez du jaso Ertzaintzak.

Ustezko bortxaketa saiakera zela-eta, Bergarako komisarian jarri zuen emakumeak salaketa. Ertzaintzak adierazi du salake- ta jaso zutenean ikerketa zabal- du zutela eta orain, ustezko deli-

ISTILUAK ARETXABALETAN

Aretxabaletan za- uritutakoak hobera egin du

Aretxabaletan joan zen domeka goizaldean izandako iskanbilaren harira badago berritasun. Larri zaurituta Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten gazte magrebtarren egoerak hobera egin du. Buruan kolpatuta eta labankada baten erruz, Zainketa Intentsibotako Unitatera eraman zuten gaztea. Haren bizia arriskuan egon bazen ere, zorionez, nabar- men egin du hobera. Bestalde, Ezkutu tabernako jabeak azpima- rratu gura du gertakariak ez zirela taberna barruan gertatu. Kanpoan izan zirela argi laga gura izan du. Gazte magrebtarra Durana kalean agertu zen larri zaurituta.

> POLIZIA OPERAZIOA

Arrasateko PSE-EEko kideak pozik daude, Carrasco "hiltzeko agindua" eman zuena atxilotu dutelako

Martitzenean atxilotu zituzten Frantzian ETAko ustezko lau kide: Francisco Javier Lopez Peña *Thierry*, Ainhoa Ozaeta, Igor Suberbiola eta Jon Salaberria. Atxilotaketa horien harira, pozik azaldu da Arrasateko PSE-EE. Paco Gartzia esan du pozik dau- dela atxilotekengatik; baina batez ere ETAko buru *Thierry*-ren atxilotekat poztu du Gartzia. Ustez, Isaias Carrasco "hiltzea agin- du" zuen *Thierry*.

Gartzia gaineratu du ETAk "inoiz" ez dituela bere helburuak lortuko. Legea erabilita "terrorista guztiak" atxilotuko dituztela eta denek kartzelan bukatuko dutela esan du Gartzia.



Azokek erantzun ona izan zuten herritarren artean.

HARREMAN

AZOKAK > BIDEZKO MERKATARITZA

Harreman, pozik azokek izandako salmenta onekin

Aita Menni ospitalean, Antzuolan eta Aretxabaletan egin ziren azokak joan zen astean: 1.088 euroko salmentak izan zituzten

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan egin zituzten aurre- ko aste bukaeran bidezko mer- kataritza azokak. Antolatzai- leak gustura geratu dira azokek izan duten erantzinarekin eta salmentekin. Parte hartza ona izan dela esan dute. Hiru azo- ka horietan 1.088 euro batu dire- la gaineratu dute. Horregatik, azokan egon ziren guztiak eske- rrak eman gura dizkiete Harre- man elkarteko kideek.

SINADURA BILKETA

Arrasateko Aita Menni ospita- lean jarri zuten bidezko mer- kataritzako postu bat: "Jende askok *Egizu planetaren alde, aukeratu bidezko merkataritza kanpainaren alde galduet- zuen*", azpimarratu du Iñigo Truebak, Harreman elkarteko

kideak. Hala, kanpainaren berri eman eta informazioa eskaini zuten Harremaneko kideek. Horren harira, kanpainaren sinadura egiten ari dira Arrasateko Eroski supermerka- tuan dagoen Harreman den- dan. Gainera, kanpainaren berri ere ematen dute.

DONOSTIAREKIN ELKARLANA

Aretxabaletako azokara Valen- tin Olaetxea Donostiarra Car- taseko kidea etorri zen. Hori dela eta, Olaetxeari eskerrak eman gura dizkiote Harrema- netik: "Bisita horren helburua, bi taldeek lan koordinatua egi- tea izan da", dio Truebak. Orain arte elkarlanean egindako lana ona izan dela eta aurrerantze- an ere ona izaten jarraitza- espero dutela gaineratu du Truebak.

SINADURA BILKETA

Arrasateko Aita Menni ospita- lean jarri zuten bidezko mer- kataritzako postu bat: "Jende

Iñaki Antiguedad hidrologoa eta EHuko irakaslea Debagoienean izan zen joan zen astean, ura-

ren gainean hitz egiteko. Astelehenean, Arrasaten izan zen eta martitzenean, Oñatin 'Uraren

kontuak XXI. mendean' izeneko hitzaldia ematen. Uraren egungo nazioarteko kudeaketaz eta

garapen iraunkorraz luze hitz egin zuen. Ibaien gainean jarduno du bihar, Bergaran.

Iñaki Antiguedad > Hidrologoa eta EHuko irakaslea

"Oraindik ere, badugu ikasi beharreko ikasgaia: erreka errespetatzearena"

A.BARRUSO/M.BITERI > ARRASATE

Uraren ikuspegitik, gaur egun munduan dauden desoreken eta garapen iraunkorra bezala ezagutzen denaren gainean sakon hitz egindug datozen lerroetan Iñaki Antiguedad hidrologoa eta irakasleak.

Zein da Uraren kontuak XXI. mendean hitzaldiaren muina?

Ura ardatza izanik modu askotako hitzaldiak prestatu daitezke. Mugarik Gabeko Ingeniaritzako boluntarioek esan zidaten nazioarteko uraren arazoaz hitz egiteko. Beti esan dut jendeak oso ikuspegi murritza duela uraren gainean. Ura identifikatzen du iturriarekin edo errekairekin; baina ez mendiarekin edo belarrarekin. Eta gero horrek badauka bere eragin negatiboa. Hortik abiatuta, pil-pilean dagoen arazoa gogora ekarri nahi izan dut: ura eta nekazaritzaren artekoa.

Euskal Herrian nekazaritza asko dago. Zer hausnarketa egin beharko genuke?

Oso gai polita eta sakona da. Gaur egun albiste bihurtu da oinarrizko elikagaien prezioak gora egin duela. Nazio Batuen Erakundeak berak esana du munduan ia 800 milioi lagun daudela goseak jota. Horren harira azaldu da oso kontzeptu interesantea: ur berdearena.

Zertan datza hori?

Elikagaiak ekoizteko erabili behar den ura da. Denda batera joaten garenean elikagaiak erostera askotan ez gara konturatzan, baina elikagai bat ekartzen dugu Txiletik eta bestea Asiatico. Horren atzean, ur kontsumo itzela dago. Elikagai horien bidez, ura ekartzen ari gara. Joanaztea bada, horretaz jabetzen ez bagara ere.

Horrek zer nolako ondorioak ditu herrialde horietan?

Ur barik daudela. Hirugarraren munduko herrialde batzuetan ez daukate etxerako urik. Daukaten ur apurra erabilten dute esportazioko elikagaiak ekoizteko; hain zuzen ere, guretako. Noiz edo noiz, horren gainerako azterketa egin beharko genuke hemen.

Ura garapen iraunkorraren ispilua dela diozu. Zer dela eta?

Bai, hala da. Gerora begira, ura zelan kudeatzen dugun arabera, garapena modu batean edo bestean ulertuko dugu. Nire ustez,



Iñaki Antiguedad Arrasateko Eskola Politeknikoan. Biar, martitzena, Bergarako kultura etxearen jardungo du, 18:30ean.

A. BARRUSO

DESOREKA

"Kapazak gara kanpora espazio ontzia bidaltzeko; eta aldi berean, 800 milioi pertsonak gosea jota egotea"

gero eta tematiago gaude betiko bidetik. Lehenengo adibidera bueltatuz, XXI. mendean kapazak gara kanpora espazio-ontzia bidaltzeko; eta aldi berean, 800 milioi pertsona goseak jota egotea. Edo mila milioi pertsonen etxearen urik ez izatea, baina ortuan bai, gure elikagaiak sortzeko.

EZAGUTZARIK EZ

"Batzuek egitasmoak mapa baten gainean diseinatzen dituzte. errealitatea kontuan hartu barik "

Uraren krisia dago munduan? Krisia ez da urarena; ura kudeatzeko moduarena, baizik. Kudeaketa horretan sartuko bagina, argumentu asko topatuko genitzuke garapen esaten diogun hori pikutara bidaltzeko. Oraindik ere, lehenengo mundua garen honetan, badugu ikasi ez dugun ikasgia:

DEBAGOIENA

"Deba azpiegitura guztien sehaska da. Denetariko azpiegiturak daude. Lurrak molestatzen du"

erreka errespetatzearena. Hirigintza eta zementua gehiago errespetatzen ditugu. Lurralde antolaketa gauza asko dago aztertzeko; urak garantzi handia du hor. Zer diozu administrazioen lanaz? Itxura gehiago dago, muina

baino. Gaurko garapenak ez garamatza iraunkortasunera, baizik eta kontrara. Esanetan iraunkortasuna serio hartzen dugu, baina gero eginetan ez gara kapaz martxa zoroa gelditzeko eta hartu beharreko bidea sakon aztertzeko. Batzuek saltzen diguten garapen iraungarria baino, nik iraingarria deitzen diot.

Kontsumitzaileak kontzientziatuta gaude?

Egunero bakoitzak zenbat ur kontsumitzen duen ote dakiten galdeztzen dut hitzaldietan. Normaleran, ez dute ideiarik. Oso zaila da datu horiek topatzea; mundu ezkutua da. Nik ditudan datuen arabera, kontsumoa behera goaz litro biztanleko. Jendeak onartzen du bizitzeko ura funtsezko elementua dela; baina, oraindik ez da konturatua uraren konplexutasunez. Ura iturrietara joateko jaio dela uste dugu. Kritikoak izan behar dugu eguneroko baliabideekin.

AHTk zer nolako eragina izan dezake uraren ikuspegitik?

Hala da. Horrelako azpiegitura erraldoi batek, era askotako txikizioak dakar, baita uretan ere. Kontua da akuifero garrantzitsu batzuetan zer kalte egingo duen ez dakitela. Hor dago, esaterako, Udalatxeko akuiferoa. Sailkatuta dago akuifero interesgarri bezala. Dagoena zaindu behar dugu. Batzuek egitasmoak mapa baten gainean diseinatzen dituzte, errealitatea kontuan hartu barik. Udalatxeko tunelak 500 metro harantza egitea ez da aztertu ere egin.

Akuiferoak hustu edo kalteztzen badira ere, lasai egoteko esaten digute beti; ondoan, urtegi bat egingo dutela esango dute. Gipuzkoatik irten gabe, beti egongo da norbait presa bat edo bi egiteko prest dagoena. Teknologiak dena konpontzen duela helarazi nahi dute. Akuiferoa erabili bai baina zaindu behar da, datozenek izan dezaten. Horixe da niretako garapen iraunkorra.

Amaitu aurretik, nolakoa da bailararen egoera?

Txarra. Abiadura Handiko Trenaz gain, beste hamaiaka azpiegitura daude aurreikusita. Deba azpiegitura guztien sehaska da. Denetariko azpiegiturak daude. Uraren ikuspegi murritza daukagu gula esan dut lehen. Baina, are eta murritzagoa daukagu lurraldea. Lurrak molestatzen du. Garapena lurralde horri lotuta joan behar da beti.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Lanbide Heziketak bi proiektua urkeztuko ditu

Goi Lanbide Heziketa Berariazko Miguel Altunako areto nagusian, Europen bakarrenetakoak diren bi proiektu aurkeztuko dituzte bihar, martitzena, 11:00etan: *Orga eta garabien trebakuntza eta Lantokietako presta-kuntzaren jarraipena mugikorraren bidez.*

BERGARA

> Umesahararrak hartzeko eskaerak

Bubisher elkartea martxan jarri du uztailean eta abuztuan Saharako umeak ekartzeko kanpaina. Horiek hartzeko gertu dauden familiak honako zenbakietara dei dezakete: 670 41 76 07 edo 617 26 04 11.

ELGETA

> Haur eskolan matrikulala daitezke umeak

Herriko haur eskolan matrikulazio epea zabaldu dute. Maiatzaren 30ean bukatuko da.

ARRASATE

> Arrasate Musikalen matrikulala daiteke

Arrasate Musikal eskolak zabalik dauka matrikulazio epea, ekañaren 20a arte. Horretarako, Monterron jauregira jo behar da astelehenetik egunera, 17:00etan 20:00etara. Iksagaiak hauek dira: balleta, musika tailerra, hezkuntza berezia, hizkuntza musikal gazte

eta helduendako, musika instrumentuak eta taldeak.

DEBAGOIENA

> Saharrendako udalekuia laguntzeko

Nubi eta Iesbaa Sahararekin elkartasun taldeek 12 ume saharrendako udalekuia antolatzen dihardute, eta dirulaguntza beharrrean daude. Ekarpentak egiteko, hiru kontuzabaldu dituzte: Euskadiko Kutxan, 3035 002 16 0020047050; Caixan, 2100 6838 48 0200002671; eta Kutxan, 2101 0055 67 0126379429. Argibideak: sahara_arrasate@hotmail.com edo iesbaa_aretxabaleta@hotmail.com.

ARRASATE

> Orioko udalekuetan izena emateko aukera

Txatxilipurdik Orion udalekuak antolatu ditu 12-14 urte artekoendako, eta bigarren txandan lekua dago

OÑATI

> Oinordetzaz eta bizi-testamentuaz berba egingo dute bihar, martitzena, Pake Lekun

Oinordetza eta bizi-testamentua delako berbalidia egingo du Javier Perez abokatuak bihar, martitzena, Pake Leku erretiratuen egoitzan, 17:00etan. Bizikasik, Bizitza Osoan Zeharreko prestakuntza erakundeak, eta Pake Leku antolatu dute, eta interesa duen edozeinendako dago zabalik.

943 25 05 05
goinkaria@goiniana.com

(uztailak 11-21). Ekintza bereziak izango dituzte: surfa, kontzertua...

ARETXABAleta

> Odol-ateratzeak egingo dituzte gaur

Odola emateko aukera izango da gaur, astelehena, osasun zentroan, 16:00etan 20:00etara.

OÑATI

> Haur eskolan matrikulala egin daiteke

Txiki txoko haur eskolan matrikulala egiteko aukera izango dute 0-2 urte arteko umeek maiatzaren 30era arte, berau barne, irailean hasteko. Argibideak, 943 71 64 05 telefonoan.

ARRASATE

> Azukrearen ondorioen gaineko berbalidatza

Azukrea eta bere ondorioak; postre osasuntsuak delako berbalidia egongo da martitzenean, hilak 27, CANen (Nafarroako Kutxa) egoitzan, 17:30ean.

Bukaera, postre-dastaztea izango da hitzaldira joan direnendako.

DEBAGOIENA

> Hiru Tenpluen ibilbidea egingo dute

Bergara: *izenen bira, gure arrastoen bila dela*ko ibilaldia egingo dute hilaren 30ean, egubakotza, 19:30ean. Bestetik, Aloña Mendi elkartearak Hiru Tenpluen ibilbidea antolatu du datoren zapaturako, maiatzak 31. Izenematea: 902 18 14 71 edo info@mundumirafesta.com.

ESKORIATZA

> Kulunka haur eskolan matrikulala egin daiteke

Kulunka Haur Eskolan matrikulazio epea maiatzaren 30era bitartean izango da zabalik.

BERGARA

> 1949an jaiotakoek bazaria izango dute

1949an jaiotako bergararrek batera baziak zegoela lehenengo, gero 2008an hondoa joko zuela, eta orain 2009 urterarte arte baino ez dela luzatuko.

DEBAGOIENA

> Mintza egunerako autobusa antolatu dute

Getxon ospatuko dute Mintza eguna ekañaren 14an, eta Arrasateko Zahar Berri eta Bergarako Berriketan egitasmoek autobusa antolatu dute. Izenematea zabalik dago AEDn (943 77 12 28, Ainhoa) eta Jardunen (943 76 36 61, Irune)

etxeko leihotik



Inaxio Arregi > zuzen@goiniana.com

Ekonomia krisian?

Estatu Batuetan 2007ko udan sub-prime maileguen krisia sortu zenetik behin eta berriro saiatu zaizkigu botebere politiko eta ekonomikoak egoera kezkagarria ukatzen. AEBetako krisi finantzarioak ez zuen eraginik izan behar Europako errealitatean. Egia izan behar du, hemengo sistema finantzarioa dezente sendoago dagoelako eta hango neurriek (interes tasak jaistea) ez direlako hemen erabili.

Hala da. Mundu finantzarioaren krisiak bainodezente gehiago ari dira gure poltsikoak hustutzen gasolinaren prezioek eta KPIaren etengabeko igoerek. Ez du gainera ematen amairarik izango dutenik.

Horregatik, ez dugu ulerzen zergatik saiatu izan diren begi bistakoa dena ukatzen. Krisirik ez zegoela lehenengo, gero 2008an hondoa joko zuela, eta orain 2009 urterarte arte baino ez dela luzatuko.

Guk baina, herritar arruntok, badakigu lanera joateko geroz eta gehiago ordaindu behar dugula (gasolina), oinarrizko janariak geroz eta garestiagoak direla eta kredituengatik ordaintzen duguna ere, orain bi urtekoa baino gehiago dela.

Okerrena da honek ez duela hobera egingo, eta ausartuko nintzateke esaten gure bizimodu eta ohituretan aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituela. Denborak esango digu.

> Gorpuzti eguna.

Udaberri-udako modelo berriak jantzita kalera irteko eguna. Hala izaten zen lehen; oraindik ere bada zerbait. Joan den astean ikusi dugu zenbait oñatiar Arrasateko modadendetako poltsekin.

"Okerrena da honek ez duela hobera egingo eta aldaketak ekarriko dituela"

> Plaza erditik. Nire lagun baten amonak zioen: oñatiarra betik atzeko kaletik. Hori konstatzen zuen lagunak. Eta nik diot: Gorpuzti egunean, oñatiarra lehen eta betik, alkandora berria eta plaza erdi-erditik.

debagoiendarrak kanpoan

Amagoia Madina > Oñati

"Sutzarrak, jendea ezagutzerako orduan, gu baino zabalagoak dira"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Amagoia Madina (Oñati, 1982) Lau-sannen (Sutzar) bizi da. Oñatioko Mondragon Unibertsitatean egin zituen ikasketak, Ingeneritza Teknikoa Informatika Kudeaketan deritzeron lizentziatura. Bi urtez izan zen Oñatin ikasten eta, ikasketak amaitzeko kanpoa egin ostean, etxerako itzulera espero baino gehiago atzeratu zaio. Ikasketak amaitu zituenean urtebetete izan zen unibertsitatean lanean, ikerketa lantale batetan. Egun bankubaten arida informatikala nakan egiten eta ez daki noiz bueltatuko den hona, oraingoz gustura dago han.

Noiz utzi zenuen Oñati Lausana-nera joateko?

2004ko irailean etorri nintzen Sutzara, Oñatin hasi nituen ikasketak amaitzeko xedez. Hemen ikasketen lehen zikloa amaitu

nuen. Oso argi nuen ikasketak kanpoan amaitzea, beste kultura eta jende bat ezagutu... Bizimoduz aldatzea nahi nuen. Beka bat lortu eta bi urte eta erdirako etorri nintzen.

Bi urte eta erdirako joan, baina oraindik handik zabiltza. Hango bizimodu nahiko, ala?

Ba egia esan gustura nago hemen. Sutzar leku polita da bizi-ko, hainbat plan ezberdin egin daitezke: ondoan dugun lakura joatea, mendira, eskiatzen... Horretaz gain, lan munduari dagokionez aukerak biderkatu egiten dira. Hainbat banku daude hemen eta nire ikasketekin bat datozen hainbat lanpostu daude.

Hori bai, Oñatiara oso gustura bueltatzen naiz. Epe luzera, Oñati aukeratuko nuke bizitze-



AMAGOIA MADINA

Hiri ezin aproposagoa

Amagolaren ustez Lausanne hiri polita da bizitzeko, baina epe luzera, Oñati bueltatzeko asmoa dauka.

ko, azken finean, familia, lagunak eta nire jendea Oñatin dago.

Zein ezberdintasun daude, zure ustez, sutzarren eta euskaldunon artean?

Sutzarrei asko interesatzen zaie atzerritik datozen kultura ezberdinak. Jende berria ezagutzeko interes handia dute eta zen zuzu horretan oso zabalak direla esango nuke.

Bestalde, hemen aniztasuna da nagusi. Adibidez, egun bankuan ari naizen lantalean dene-tarik dago; Libanoko batekin, txinatar batekin, indio batekin eta bi sutzarrekin ari naiz lanean.

Zein alde on ditu Lausannek hiri moduan? Ba al du alde txarrik?

Lausanne, tamaina aldetik, Donostiarren antzekoa izango da,

baina ez dit hiri handiaren sensatsiorik ematen. Lausanne oso ondo dago hiri moduan, dena dago eskura; zinea, tabernak, dendak... Gainera, sekulako lakua dugu oso gerto, eta itsasoa ez bada ere, oso ondo dago udarako.

Bestalde, Sutzan garraio publikoak oso ondo funtzionatzen du, eta ez da izaten han hiri handietan izan ohi diren trafiko arazorik. Ez zait hiriaren alde txarrik bururatzan.

Nola komunikatzen zara Oñatiko zure jendearerin?

Oñatiira sarri etortzen naizela esan daiteke. Bi hilabetean behin-edo herrian izatea gustatzen zait. Han nagoenean, ordea, familiarekin telefonoz komunikatzen naiz eta lagunekin, berriz, e-posta bidez.

kale inuesta

Tempora eta kontratenporei kasurik egiten al diezu zein eguraldi egingo duen jakiteko?



Iñaki Unamuno
Erretiratua
Bergara



Lauri Askargorta
Langilea
Bergara



Luis Ezenarro
Langilea
Bergara



Kontxi Elortza
Langilea
Bergara

"Zein eguraldi egingo duen ondo asmatzea nahikoa lana da egunotan! Temporek badute nire ustez fidagarritasun maila bat, baina uste dut meteorologoek gehiagotan asmatzen dutela zein eguraldi egingo duen".

"EZ dut kasu handiegirik egiten. Nire kasuan ezjantaskun kontua izan daitake. Ez dut iragarpenean sistema hori ezagutzen ez ulertzen ere. Meteorologoek iragarpenean entzuten ditut. Gero eta gehiagotan asmatzen dutela zein eguraldi egingo duen".

"EZ dut temporetan sinisten. Nire uste ezinezko da hain epe luzera eguraldi iragarpenean ondo egitea. Gehienez bi edo hiru egunekoan egin daitake nire iritziz. Meteorologoek iragarpenean entzuten ditut. Gero eta gehiagotan asmatzen dutela zein eguraldi egingo duen".

"Pello Zabalaren iragapenak jarraitzen ditut gehien. Iruditzen zait, baina, zaila dela asmatzea eguraldia oso alda-korra baitago. Uda kaxkarra datorrela esan du... eguzkia eta euria denak behar ditugu".

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goinkaria@goina.com

ESKORIATZA

> Leintz Gatzagarako errepidea egoera eskasean

Egunero Legutiotik Bergarara lanera etortzen den irakurle batek deitu digu esateko Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko errepidea oso egoera txarrean dagoela. Kontatu digunez, Gatzainadui pareko bide zatia da okerren dagoena: "Neurri handiko zulo mordoa daude eta, edozein egunetan, istripuren bat eragingo dute".

OÑATI

> Borondatezko alkohol-probak Gorpuzti jaietan

Borondatezko alkohol-proba egiteko aukera izan zen zapatu gauean, Unibertsitate Etorbidean. Bada, antzuolar batek ekimena txalotzeko deitu gaitu: "Afaria izan nuen zapatu Oñatin eta, apur bat edan nuenez, zalantzak nituen autoa hartzeko. Borondatezko alkohol-proba egin nuen orduan eta, negatibo eman nuela ikusita, lasai hartu nuen etxerako bidea".

BERGARA

> Kriket partidurako jendea animatu ezinean

Penatuta hurbildu zaigu asteburuan bergarar bat. Kontua da Mundumira jaialdirako kriket partidua antolatu gura dutela, baina jendea animatu ezinean dabiltzala. Atzo entrenamendu saioa egitekoak ziren: pakistandarrek bergararrei jokoaren arauak era-kustea zen asmoa, baina bertan behera geratu zen. Itxaropena ez dute galdu, ordea: herriko koadrilak animatzen sainatuko dira aste honetan. Ea, oraingoan, zorte gehiago dute.

usteak uste

Maider Arregi

Corpus eguna Oñatin

Aste bukaeran jendia zerura begira euen eurixa ingo ote ebenan bilddur. Izan be oñatiar asko egoten ga Corpus egunan zain urte osuan zihar. Asko juergarako goguaz eta beste batzuk, fededun zintzuenak, Corpusetako prozesiñua ikusteko desiatzen. Ni normalian juergarako egoten naiz baña aurten lana egittia tokatu xat eta aspaldiko partez euki dot aukeria eguerdi partian horrenbeste urtetako ohitura telebista bidez ikusi biharrian zuzenian herriko plazatik ikusteko.

Nahiz eta fededun zintzoa ez izan, esan biharra dakot gustora ikusi nebelaz prozesiñua domekan. Baña bezperan urteroko kale bueltatzua be iñ barik ez nintzan geratu. Badakitzue ohitura onak ez diala sekula galdu bihar.



Dagoenean, bonbon

"Kooperatibeko kideen arabera, Amporen eta Mondragonen gestio ereduek talka egiten dutelako hartu dute erabakia. Pertsonetan oinarritutako kudeaketa eredu-nahi dutela diote. Hau da, Koldo Saratxaga Irizarreko arduradun ohiak bere garaian bultzatu zuenaren modukoa."

Berria > 2008-05-24

Ostiralean Ampo-Poyan enpresako langileek Mondragonek (lehen MCC) irtetzea erabaki zuten, botoen %85arekin, nahiz eta Lagun Aron jarraituko duten. Erabaki honekin, eta kontuan hartuta beharbada ez dela izango irteera bakarra eta azkena, oso kinka larrian utzi dute Mondragon Taldea, *Humanity at work* leloa berriki estreinatu duen enpresa korporazio kooperatiboa.

Ampo-Poyan kooperatibak eman digun lezioa ez da nolanahi-koia izan: enpresen arteko solidaritate printzipioa bai, baina beti handiak txikiari laguntzen badio, sekulan ez alderantzik. Handietako batzuk hain ondo ez dabiltzala ikusita, orduan onena han-ka egitea.

Irtearen arrazoia argudiatzeko komunikabideetan irakurri dugun azalpen ofiziala, "pertsonetan oinarritutako kudeaketa eredu" behar dutela, alegia, niri oso generikoa iruditzen zait, azalekoa oso. *Of the record*, ordea, Mondragoneko zuzendaritzak Fagor Elektrotresnatik 80 langile Ampo-Poyanera bidaltzeko asmoa zutela esaten da eta, ondorioz, Idiazabalgo enpresakoek erabaki dute la ezin izango luketela aurrera egin *mixteln* horiekin.

Nahiz eta gaur egun aholkulari lanak bete, Mondragonetik kanpo, Koldo Saratxaga ostiralean Ampo-Poyanen Kontseilu errektoreko mahai nagusian eseri zen, era-baki honen atzean Irizarreko -talde-tik irten daitekeen hurrengo kooperatiba- koordinatzaile mitiko ohiaren itzal luzea dagoela modu nabarian erakutsiz.

Ampo-Poyan 2002. urtean sartu zen azkenengoz MCCn (lehenago ere egona eta irtendakoa da). Beharbada oker egongo naiz, baina pentsatzeko da agian MCCn egoteari zor diola, neurri batean edo bestean, gaur egun lortu duen garapena eta hazkundea. Hala izanik, oso esker txarreko litzateke orain hartu berri duten erabakia.

"Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon" dio esaera euskaldunak. Beti ez da betetzen, ordea.

**"Solidaritatea bai,
baina beti handiak
txikiari laguntzen
badio"**

**"Saratxaga Irizarreko
koordinatzale
mitiko ohiaren itzal
luzea hor dago"**

Goinkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Errredaktore burua Edu Mendibil Errredakzioa Larraitz Zeberio, Maider Arregi, Goiatz Arana Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaiztaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goina.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otaiza Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goina.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goina.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goina.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goina.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE

Bihartik aurrera zor ekologikoa izango dute aztergai EkoZinemaldian > **10**



> BERGARA

Hil bukaeran edo ekaina hasieran amaituko dituzte Artabila inguruko urbanizazio lanak > **11**



> ANTZUOLA

Ekainaren 23an banatuko dituzte balkoi eta lehoetako lore apainketa lehiaketa sariak > **14**



PARROKIATIK ABIATZEN San Miguel, Apostoluak eta Oñatz taldeko dantzariak parrokiatik irten eta prozesioko lehenengo metroak egiten.

L.Z.

OÑATI > GORPUZTI JAIAK

Ostardea zabaldu zen atzo Oñatin Gorpuztieta prozesioa egiteko

OÑATI LEPO BETETA

Euri tanten beldur egon ziren oñatiarrak, baina prozesiorako eguraldi ona egin zuen

BISITA GIDATUA

Aurretik egindako bisita gidatuan 30 bat lagunek hartu zuten parte, asko oñatiarrak

LARRAITZ ZEBERIO > OÑATI

Dantzarien kriskitin doinuak 10:00etarako entzun ziren atzo Oñatiko kaleetan. Urtero legez, San Miguel parrokiaraino lagundu zituzten prozesioan parte hartzeakoak ziren irudi guztiak.

Zertxobait lehenago, 09:45ean, abiaturi zen Turismo Bulegoak antolatutako bisita gidatu berezia. "Unibertsitatea eta udaletxearen gaineko azalpenak jaso ditugu", adierazi digu parte hartzaleetako batek. "Jarraian, Santa Ana aretoa eraman gaituzte San Miguel eta Apostoluak nola janzen dituzten ikusteko. Interesgarria izan da benetan".

ZERURA BEGIRA

Zerura begira eman zituzten eguneko lehenengo orduak Oñatin. Aste bukaeran giro trumoitsua izan dugu, inondik inora. Han eta

hemen eragindako kalteak ez dira txikiak izan. Oñatiko prozesiorako, ordea, ateri egon da. Miraria, akaso? "Bigarren urtea dut dantzarien kapitain lanetan", esan

digu Julen Kortabarriak. "Aurrelik beste zortzi egin ditut gorri. Ez du sekula euririk egin. Batean tanta batzuk prozesio amaieran, baina ezer gutxi".

Txukun egin du bere lana Juan Antonio Agirianok San Migueleñ paperean. Bigarren urtez 25 kilotako jantzia eroan du soinean. Berarekin batera 500 bat herritarrek eta 15 irudik osatu dute prozesioa.

EKITALDI GUZTIAK EGIN DIRA

Udal ordezkariak gustura agertu dira jaietako emandakoarekin. "Dena ondo joan da", adierazi digute, "normaltasun osoz. Ekitaldi guztiek egin dira eta jendetsuak izan dira, gehienbat zapatuko lasterketa eta domekako prozesioa".

Umorezko bakarrizketa saioan 180 lagun elkartu zirela adierazi digute. Txirri, Mirri eta Txirribiton Junior pailazoak bi emandaldi egin dituzte; bata bete egin dute eta bigarrenean 40 lagunetik gora batu dute. Udaletxetik, beraz, balorazio positiboa egin dute.

Prozesioan joaten diren 15 pausuak ikusgai ipiniko dituzte Parrokiako klaustroan

Zapatuan, hilak 31, erakusketa oso berezia zabalduko dute Oñatiko Parrokiako klaustroan. Gorpuzti jaietako kofradiak Udalarekin batera antolatutako erakusketan prozesioan joaten diren 15 pausuak bertatik bertara ikusteko aukera emango dute. Bestelako osagaiak ere ipiniko dituzte ikusgai, hala nola jantziak, maskarak, oinetakoak, ileordeak eta palioa, besteak beste. Erakusketak helburu didaktikoa ere badu eta pausu bakoitzak bere jatorria eta historia jasotzen dituen fitxa izango du aldamenean. Materiala hori guzti nola gorde eta kontserbatu den ere azalduko dute erakusketan. Pantaila bat ipiniko dute argazkiak ikusi ahal izateko. Erakusketa bost hilabetez egongo da zabalik, urriaren 26a arte. Herritarrendako doan egingo da zabalik ekaineko, abuztuko eta iraileko aste bukaeratan.

EKOLOGIA > ASTE BERDEA

Pobreenganako zor ekologikoa aztergai EkoZinemaldian

Bihar iritsiko da Arrasatera Ekologistak Martxan taldeak antolatu duen ekimena; filmez gain, hitzaldia eta tailerra izango dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Gaur hasi berri dugun astea eko logiarekin zerikusia duen astea da, Aste Berdea, alegia. Udalak antolatu du, Agenda 21 deritzon ekimenaren barruan, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Sailaren laguntzarekin jarri dute martxan.

Zapatura arte iraungo duen aste ekologiko hau ezin da, ordea, "II. EkoZinemaldia Zor Ekologikoa eta Energia" gabe ulertu, berau baita ekitaldi nagusia. Ekologistak Martxan taldeak antolatzen duen zinemaldia da, eta bihar iritsiko da Arrasatera. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, zinemaldi ekologiko honen helburua zor ekologikoa moduan ezagutzen den kontzeptuan sakontzea da. Nola? Nazioartean entzutesuenak diren ingurumen sariak irabazi dituzten filmak proiektatuz.

Filmok, gainera, Kulturaten soilik izango dira ikusgai. Izan ere, Euskal Herri mailako ekimena denez, pelikulak ez dira balarako beste herriean proiektatuko. Iaz, EkoZinemaldiaren lehen edizioan, filmak Donostian eta Bilbon bakarrik eman zituzten eta aurten Iruñea, Gernika, Tolosa eta Arrasatera ere ekarriko dituzte. Honekin, "gure hirietan gertatzen den kultura eta ekintza monopolioa gainditzeke aurrera pauzo bat ematen" saiatu direla adierazi dute Ekologistak Martxan taldekoek.

ZERBITZUAK > ORTU EKOLOGIKOAK

Garagartzza auzoan 87 ortu egokitze proiektua bukatuta

Diputazioak emandako dirulaguntzaren arabera, urri amaierarako eginda egon beharko dute

U.M. > ARRASATE
Garagartzako ortu ekologiko proiektu berria eginda dago. LKSk egin du eta oraingo astean aurkezta dute Ingurumen Batzordean. Horren ostean, Tokiko

ABERATSAK POBREKIN ZORRETAN

Zor Ekologikoa behin baino gehiagotan entzun dugun terminoa da. Baino, ba al dakigu berba honek zer esan nahi duen? Ekologistak Martxan kolektiboaren-tzat "herrialde aberastuek herrialde pobretuei zor dietena" da zor ekologikoa. Aberatsek pobreen ingurumena eta baliabide naturalak "arpilatu, kutsatu eta suntsitu" egiten dituzte eta horrek, talde ekologistaren ustez, "ordaindu gabeko ingurumen kalteak" sortzen ditu. Horretaz gain, hidrokarburoak neurrigarretzeak berotegi efektua sortzen du, eta arazo honekin kaltenak herrialde pobreak direla diote ekologistek.

Bestalde, azken film emanadiaren ostean, -eguna, hilak 29, *Soberania Violada* pelikularen ondoren- erregaien gaineko hitzal-

dia egingo du Movimiento Agrario y Popularreko ekintzaile Gida Roak. Laborantza trasgenikoek eragiten dituzten giza eskubide ekologikoen urraketak salatuko ditu ekintzaile uruguayarrak.

AHT-A ERE HIZPIDE

Ekologistak Martxan elkartea Abiadura Handiko Trenaren auzia ere tratatuko du zinemaldian, Euskal Herrian badago-eta zor ekologikoaren adibiderik. Ekologistek diotenez, "egitasmo txikitzaile honek, lurrealdean oso inpaktu bortitzia izateaz gain, zor ekologiko handia" eragingo du, trenak abiadura handia hartzeko kontsumituko duen energia kopuru altua dela-eta.

Azkenik, zapatuan birziklatutako materialein egindako jostailuen tailerra izango da Seber Altuben, egun osoan zehar.

EkoZinemaldia Arrasaten

PELIKULA	NOIZ ETA NON
Crudo despertar	Martitzena, 27-19:00etan. Kulturaten
Los ojos cerrados de America Latina	Eguaztena, 28-19:00etan. Kulturaten
Soberania violada	Eguena, 29-19:00etan. Kulturaten

EkoZinemaldiko pelikula aipagarrienak

IZENBURUA	GAIA
Crudo despertar	Petroliaaren zibilizazioaren ondorioak
Soberania violada	Bio erregaiak. Dokumentalarekin batera ekintzaile batek sakonduko du gaia
Los vinculos del Carbono	Klima aldaketa
La Revolucion de los Cocos	Munduko kobre harrobi handienaren jabe den Rio Tinto Zinc enpresaren aurkako matxinada
Impactos de la forestacion en Uruguay eta Lucha Quilombola	Basamortu berdeak
Los ojos cerrados de America Latina	Latinamerikako ingurumen eta gizarte gatazkak
Toxico Texaco	Petroliaaren eraginen aurkako borroka
Paisajes Transformados	Txinako industrializazioaren eragina



Andaluziarrek musika beste era batera ikusten dute. JOSETXO ARANTZBAL

OSPAKIZUNAK > 'AL ANDALUS' KULTURA ELKARTEA

Amaitu da ekitaldiz jositako andaluziarren Kultur Astea

Ekimenak 18 urte bete ditu aurten eta zapatuko afarian, esaterako, 130 lagun inguru izan ziren

J.B. > ARRASATE

Al Andalus elkartea ekitaldi piloa antolatzen ditu urtean zehar, eta ekitaldi horietako bat den Kultur Astea atzo bertan itxi zuten. Urtean zehar antolatzen dituzten beste ekitaldi sorta nagusiak hauek dira: Andaluziaren Eguna, Errrozioa eta Udazkeneko Jaialdia. 18. edizio honetan ere, urtero legez, zapatuko afaria izan zen ekitaldi arrakastatsuenetariko bat, Rafael Raya elkarteko presidenteak adierazi duenez, 130 lagun inguru bildu ziren-eta.

Asteburua gain, andaluziarrek astean zehar ere ospatu zituzten ekitaldi ezberdinak,

besteak beste, erretiratuei omendalia, umiei zuzendutako eguna eta karakola eta andaluziar gozoteriaren dastatzea.

DIRU LAGUNTZEN ZAIN

Rafael Rayak Kultur Astearen balorazio positiboa egin du. Hala ere, jakinarazi nahi izan du Andaluziako Juntak subentzioak noiz emango itxaroten ari direla. "Urria eta azaroa bitartean egiten dugun flamenco jaialdirako diru-laguntzen zain gaude, ezin dugu-eta laguntza hori gabe jaialdi hori antolatu". Gisa honetako emendaliak antolatzeko 2 milioi pezeta behar dira gutxienez.



AMALUR LOPEZ

Zortzigarren mailako afaria

Aurreko egubakoitzean zortzigarren mailako afaria egin zuten argazkian ageri den gazte koadrilak. Urtero egiten duten afaria da, eta iragandako une gogoangarriak gogoratzeko balio izaten duten afari horietako bat moduan definizenez. Guztiek dira Zigorrolakoak eta guztiek egin zituzten batera Zigorrolan Lehen Mailako ikastetako azken urteak. Zigorrolak pisu handia du euren bizitzan eta nola ez, afarian izan zirenek jakinarazi diguten moduan, San Isidroak "oso bereziak" dira eurendako.

Honetaz gain, aurtengo afarian inoiz baino lagun gutxiago elkartu direla eman digute aditzera; lan kontuak, haurdunaldiak eta bestelako arrazoiak direla medio. Hala ere, ohiturari "tinko" eusten diotela diote. Eta noski, oso ondo pasatu zuten, "kristoren juerga" eginaz.

Gobernu Batzarrean aztertuko dute, behin betiko onesprena emanteko eta hori datorren astelenean egingo dute, azken ordukorik ezean. 465.000 euro kostatu du ortuen proiektua oraingo beharretara egokitzeak.

Proiektu horren bitartez, Udalak gura du egokitutu partzela bat Garagartzza auzoan herritarrendako ortuak sortzeko, erretiratu, langabe eta Udalak zehaztutako irizpideen arabera, hainbat herri-talderendako lirateke ortuak. LKSk egindako proiektuaren arabera, 87 ortu egokituko dituzte Garagartzza auzoan.

URRIRAKO EGINDA EGON BEHAR

Kontuak kontu eta behin pauso burokratiko guztiak emanda, laster gauzatu beharko dute Garagartzako ortuen proiektua. Izan ere, Gipuzkoako Diputazioak dirulaguntza emanda dauka



Errepidea asfaltatzen ibili dira aste honetan.

ENEKO AZKARATE

HIRIGINTZA > URBANIZAZIO LANAK

Bukatzear daude Artabila aldeko lanak

Errepidea egokitu eta espaloia egin dituzte, argindarra ere sartu dute eta hil honen bukaeran edo hurrengoaren hasieran emango dute argia farolek

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Hil honen bukaeran amaituko dituzte Artabila inguruko urbanizazio lanak. Candytik hasi eta Surrarako bidegurutzearenoko urbanizazioaren obra zibila ia erabat bukatuta dago; farolak piztea bakarrik falta da. Argindarra sartuta dago, baina probak egiten dabilta orain eta maiatzaren bukaeran edo ekainaren hasieran emango dute argia farolek. Bestalde, inguru horren

ondoan, Miguel Altuna berria joango den orubean ere gutxi falta da lanak bukatzeko. Argindarraren kableak joango diren tutuak sartu dituzte dagoeneko lur azpian, baina kableak sartzeko argia moztu behar da ordu batuetan, eta hortxe dago gakoa. Inguruko enpresek ezin dute argirik gabe lanik egin eta Iberdrolarekin ari dira negoziatzen argia noiz moztu. Datozen asteburuetako baten egingo dute, ziur asko.

Aranzadi Ikastolako ikasleek saria

Aranzadi Ikastolako 6. mailako ikasleek Debarroak antolatutako *Gure landa ingurua, gure altxorra* argazki lehiaketako 2. saria eskuratu dute. Sari hori eskuratzeko aurkeztu duten argazkian, Agarreko garaiaren azpian zegoen arbia azaltzen da. Ondoko argazkian, irabazleak jasotako sariekin -argazki kamera digitala eta garaikurra-, irakasleekin batera.



ARANZADI IKASTOLA

KULTURA > ERAKUSKETA

San Martzialeko argazkiak erakutsiko ditu artxiboak

O.E. > BERGARA

Bergarako Udal Artxiboak San Martzian ateratako argazki erakusketa egingo du Aroztegi aretoan. Guztira 40 argazki inguru egongo dira ikusgai era-kusketa horretan eta denak argazki zaharrak izango dira, XX. mende hasierakoak gehienak; horietako asko, 1926. urtekoak, zehazki.

San Martzial eguneko festa ikusiko da erakusketa argazki guztiak: letania hasi bai-

no lehen, letania bera, osteko txokolate jana, eguerdiko dan-tzak, bazkaria eta antzerakoak, besteak beste.

FONDO ASKOTARIKOAK

Erakusketa fondo askotariko argazkiak erakutsiko ditu Udal Artxiboak, tartean Juanito Idi-goras eta Roman Larrañaga fondoetakoak.

Argazki erakusketa hori ekainaren 13an zabalduko dute Aroztegi aretoan.

HEZKUNTZA > EUSKO IKASTOLEN BATZAREN III. OLINPIADA

Mariaren Lagundia Ikastolako ikasleak Loiun

J.Z. > BERGARA

Mariaren Lagundia Ikastola EIBko (Eusko Ikastolen Batza) partaide da beste hainbat ikastolaren batera, eta joan zen maiatzaren 17an EIBko Olinpiaden III. edizioa ospatu zuten, Loiun. Hain zuen ere, Loiuko Lauro Ikastolari tokatu zitzaien

antolaketa lanak egitea. Guztira 750 ikasle inguruk parte har-tu zuten; horietatik Mariaren Lagundia Ikastolako 100 ikasle inguru, 3. LHtik 2. DBHra bitartekoak. Futbolean, saski-balioan, krosean, igeriketan eta pilotan jardun zuten bergarrek, maila ona azalduz.



Olinpiadan parte hartu zuen Mariaren Lagundiako infantil mailako talde bat. M.L.

**> UDALA
EAJko Belen
Abarzuzak dimisioa
aurkeztuko du gaur**

Gaur, astelehena, ohiko osko bilkura izango da udaletxeen, 19:30ean. Belen Abarzuza EAJko zinegotzietako batek dimisioa aurkeztuko du gaur. Bestalde, ohiko bilkuretan gerta-tzen denez, erregu eta galderen txanda egongo da bukaeran.



Belen Abarzuza.

**> ODOL ATERATZEA
Eguazteneko odol
ateratzean parte
hartzeko deia**

Eguaztenean, hilaren 28an, odol ateratzea egingo dute. Betiko moduan, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:00etan hasita.

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aitortu du azken urtean emaile kopurua jaitsi egin dela, nahiz eta joan den urtean igoera txiki bat izan zuen. Horregatik, emaile bakoitzak bultzatu gura dute ohi duena baino emate bat gehiago egitea. Horrekin batera, dei berezia egiten diete gazteei, "odola benetan beharrezkoa delako" ardu-radunen hitzetan.

Guztira 1.329 emate egin zituzten odol emaileek 2007an eta kopuru hori handitzea da aurtengo helburua.

UDALA > DIRULAGUNTZA

Enpresa berriak sustatzeko laguntzen araudia aldatu dute

Aldaketan arabera, enpresa berriei 1.000 euro emango zaizkie kontratatzenten duten langile bakoitzeko

Araudi berriaren gainerako alegazioak aurkezteko epea zabalik dago ekainaren 15era arte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Enpresa berrien sustapenerako udal araudian aldaketa batzuk egitea erabaki zuen apirileko osoko bilkurak. Aldaketak jasotzen dituen udal ordenantza maiatzaren 15ean kaleratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Orain, 30 eguneko epea zabaldu da alegazioa aurkezteko. Hain zuzen, ekainaren 15era arte.

Epea batu ondoren, behin betiko izaeraz argitaratuko da aldizkarian, eta indarrean jarriko da.

DIRU GEHIAGO LANGILEKO

Enpresa berrien sustapenerako ematen dituzen dirulaguntzen araudian egongo den aldaketa nagusiena, langile bakoitzaren-gatik jasoko duten diru kopuruaren dago. 2005eko apirilaren 28an onartutako araudiaren arabera, langile bakoitzeko 300 euro jasoko luke enpresako ugazabak. Orain onartu diren aldaketekin, enpresa sortzen den unean duten langile bakoitzeko 1.000 euro jasoko dute. Gainera, urtero langileen kopurua berraztertuko dute, eta urterik urte dagoen langile berri bakoitzeko, beste 1.000 euro emango ditu Udalak. Berrazterteta hiru urtetan egingo da.

DATUA

1.000
EURO

Hauxe da, enpresak alta ematen duen egunean duen langile bakoitzeko jasoko duen diru kopurua. Urterik urte, hiru urteetan, langile berri bakoitzeko ere, 1.000 euro jasoko ditu.

Bestalde, langileen kontratuak aldi baterako badira, jasoko duten laguntza proportzionala izango da.

BIDERAGARRITASUN PROIEKTUA

Enpresa berriak sortzeko laguntza eskatzen duten ugazabek tutoretza zerbitzua izango dute. Gainera, bideragarritasun azterlana egiteko laguntza ere jasoko dute. Merkataritza, zerbitzu arruntak, oinarrizko tailerrak edo gremioen arloko proiektua bada, 300 euro jasoko dute. Dimentsio handiagoko aktibitateak direnean, inbertsioa eta kualifikazioa hartuko dira kontutan eta 600 euro emango dira laguntza gisa. Azkenik, proiektu berritzaleak direnean, hau da, berrikuntza eta teknologiarekin zerikusia dute-nean, 900 euro.

Bestalde, enpresa berriak sortu gura dituztenen eskura hainbat lokal jartzen ditu Udalak Zubillagako industrialdean. Azken lau urteotan igoera barik egon ondoren, alokairu prezioak eguneratu egin dituzte. Hala, lehenengo urteko alokairuagatik, hilero, 0,98 euro ordaindu beharko dira; bigarren urtean, 2,83, eta hirugarrenean, 5,44.



Argazkian, iazko erromesaldian parte hartu zutenetako batzuk.

GOIENKARIA

ERROMESALDIA > ASTE BUKAERAN

Lurdeseko erromesaldia egubakoitzean irtengo da

Oñatiko hamaika gaixoek parte hartuko dute Uriarte gotzainak emango duen meza nagusian

M.B. > OÑATI

Egubakoitzetik astelehenera arte, Lurdesera, eta ostatu hartu ondoren, hainbat ekitalditan parte hartuko dute. Dena den, aste bukaerako hitzordurik nagusiena, zapatuan, 11:00etan, Juan Mari Uriarte gotzainak emango duen meza nagusia izango da. Hain zuzen ere, Gipuzkoako eguna ospatuko dute zapatuan. Meza horretan parte hartuko dute, zapatuan bertan irtengo den autobusean doazen erromesak.

EKITALDI ASKO

Bazkaldu ondoren iritsiko dira Lurdesera, eta ostatu hartu ondoren, hainbat ekitalditan parte hartuko dute. Dena den, aste bukaerako hitzordurik nagusiena, zapatuan, 11:00etan, Juan Mari Uriarte gotzainak emango duen meza nagusia izango da. Hain zuzen ere, Gipuzkoako eguna ospatuko dute zapatuan. Meza horretan parte hartuko dute, zapatuan bertan irtengo den autobusean doazen erromesak.

Gaixoekin erromesaldian parte hartzen dutenak astelehenean itzuliko dira etxera, eta gainerako erromesak, domeka ilunkaran.

> ERRETIRATUAK

Gaurtik hasi eta domekara arte hainbat ekitaldi egingo dituzte erretiratuen astearen barruan

Txokolate-jana, hitzaldiak, irteerak, bingo jokoa eta bazkaria dira Pake Leku elkarteko kideek gaurtik aurrera izango dituzten ekitaldiak. Erretiratuen astea domekan bukatuko da, parrokiaren egingo duten mezarekin, eta kirolegiko bazkariarekin. Bertran, German Gonzalez eta Basilisa Madina omenduko dituzte.

> HITZALDIA

Familia barruko komunikazioaren inguruko hitzaldia egingo dute egubakoitzean, Elkar Hezin

Komunikazioaren ikuspuntutik, nola egiten diozue aurre gatazkari familial? da Elkar Hezi ikastetxeak antolatu duen hitzaldia-ren izenburua. Hain zuzen, egubakoitzean egingo dute hitzaldia, 10:30ean, Arantzazu kaleko eraikineko liburutegian. Jose Amia-ma psikopedagogoa izango da hizlaria.

> MUSIKA ESKOLA

Jose de Azpiazu Musika Eskolan izenemate epea zabalduko dute ekainaren 2tik 20ra arte

Errekalde auzoan dagoen Jose de Azpiazu Musika Eskola 2008/09 ikasturterako izenemate epea zabalduko du ekainaren 2an. Hain zuzen ere, ekainaren 20ra arte eman ahal da izena idazkatzan. Informazio gehiago gura duenak edo izena eman gura duenak eskola orduetan joan beharko da Gorritxitxiko eskolara.

ETXEBIZITZAK > KASABLANKAN

Kurtiderixako etxeetan izena emateko bulegoa egubakoitzera arte egongo da zabalik

Momentuz hiru lagunek bakarrik eman dute izena Foruen Enparantzako 7. zenbakian dagoen bulegoan

M.B. > OÑATI

Hamabost egun pasa dira Kurtiderixako etxe tasatuak eskuratzeko erregistroa egiteko epea zabaldu zela, eta momentuz hiru lagunen izenak jaso dituzte bakarrik, Foruen Enparantzako dagoen bulegoan. "Oraingo izen gutxi jaso ditugu, eta epea egubakoitzean bukatzen da. Badirudi jendea ez dela animatu Kurtiderixako etxeak erostra", esan digu erregistroa egiten dihar-duen langileak.

2010. URTERAKO BUKATUTA

Otadui Zuhaitzia 12 A, 12 B, 16 A, 16 B, 18 A eta 18 B zenbakietan eraikiko diren etxeak 78 eta 102 metro koadro artekoak dira, eta prezioak, 203.000 eta 254.000 euro artekoak. Gainera, hiru logelako etxe argitsuak dira, eta batek



Bulegoa, Foruen Enparantzako 7. zenbakian dago.

M.B.

izan ezik, guztiek dute bi komun. Etxe tasatu guztiek garajearen salduko dituzte. Eraikuntza enpresak jarritako epeak betetzen badira, 2010. urterako amaituta egongo dira.

Informazio gehiagorako edo etxeak erosteko izena emateko bulegoa zabalik dago ordutegi honetan: martitzen, eguen eta egubakoitzean 12:00etatik 14:00etara, eta eguztetenetan, 16:00etatik 18:30era.

Beste zozketa bat Urbietako etxeekin

Lehenengo zozketan libre geratu ziren Urbietako guneko etxeekin bigarren zozketa bat egingo dute. Horren harira, oraindik ez dute zehaztu noiz egingo den. Bigarren zozketaren ondoren, libre geratzen diren etxeak eraikuntza enpresaren esku utziko dira.

ARETXABAleta-ESKORIATZA > AISIALDIA

Udaeroko ekimenetan izena emateko epea ekainaren 25ean amaituko da

Egun osoko irteerak, herri olinpiadak, surf ikastaroa eta Akelarrea antolatu dituzte

Ekintzak Aretxabaleta eta Eskoriatzako 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta

Aurten ere Udaero izango dute Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteek. Dagoeneko zabalik dago antolatu diren ekimenetan izena emateko epea. Ekainaren 25ean amaituko da hori. Uztalean hasiko da Udaero programa.

Egitarau erakargarria presztatu dute. Uztailaren 1ean, egun pasa izango dute hondartzan. Paint ball egiteko aukera ere izango dute egun berean. Hitzordua 09:00etan egin dute herriko bakoitzeko gazteleku eta bazkaria norberaren kontura joango da. Irteera horren prezioa 10,5 eurokoa da eta plazak mugatuak dira.

Bigarren irteera Gamarrara egitea aurreikusita dago, uztailaren 2an. Aretxabaletako gazteak 14:30ean irtengo dira geltokiak eta Eskoriatzakoak ordu laurden beranduago. Sei euro balioko du horrek eta aurrekoan bezala, plazak mugatuak izango dira. Uztailaren 3an, berriz, herri olinpiadak izango dira gaztelekueta. Jarraian, olinpiadetan parte har-

ten duten guztiak Eskoriatzako gaztelekuak elkartuko dira, afaria egiteko.

Uztailaren 8an, surf ikastaroa izango dute Zarautzen. Egun osoa emango dute horretan. Plaza mugatuak dituen ekintza horren prezioa 10,5 eurokoa da. Hurrengo egunean, Landara joango dira goizetik; eta uztailaren 10erako, Akelarre Gaua antolatu dute. Gaztelekuak geratuko dira 18:30ean.

HIRU EGUN URDAIBAIN

Aurtengo Udaero, hiru eguneko irteerarekin agurtuko dute. Uztailaren 18an, Urdaibaira joango dira kanpinean. Ekintza bereziak izango dituzte, hala nola, kirolak eta gaubelak. Hondartzaz ere disfrutatu ahal izango dute. Primerako hiru egun pasatu gura duenak, 45 euro ordaindu beharko ditu.

Plaza mugatuak dituzten ekintzetan izena eman behar da aurrekik; gainerakoetan parte hartzeko aipatutako ordu eta lekuak azaldu beharko dira, bes-



KARTELA Aurtengo Udaero egitsmorako prestatutako kartela.

GOIENKARIA

terik gabe. Ordaindu beharreko ekintza guztietan izena ematen duenak, deskontua izango du. Guztira, 65 euro ordaindu beharko ditu.

Parte hartu gura duenak, gazteleku eta gazteria zerbitzuetan aurkituko dituen esku orria bete beharko du eta esandako tokietan utzi. Gaztelekuak aste bukaeretan zabalik daude; Aretxabaletako gazteria zerbitzuko bulegoa astelehenetan eta eguztenetan; eta Eskoriatzako maritzetenetan eta eguznetan.

ARETXABAleta > IRAKURKETA

Loramendi eta Euskaltegiaren 'Atxabaltan be leidu' kanpainan 17 lagunek parte hartu dute

Julia Cabezasek Jon Arretxeren 'Harresi Handirantz' liburua gomendatu du; 40 euroko balea irabazi du Elkarren



IRABAZLEA Julia Cabezasek irabazi du lehiaketa.

GOIENKARIA

M.B. > ARETXABAleta
Loramendi Euskara Elkarteak eta Leintz Udal Euskaltegiak irakurketa bultatzeko abian jarritako *'Atxabaltan be leidu'* kanpainak badu dagoeneko sarduna. Julia Cabezasek Bergarako Elkar liburu denden 40 euroko bale bat irabazi du. Jon Arretxeren *'Harresi Handirantz'* liburuaren gomendioa egin du irabazleak.

Loramenditik jakinarazi digitenez, guztira, hamazazpi pertsonek parte hartu dute. Persoña helduak izan dira liburuen

gomendioak egitera animatu direnak; umerik ez da aurkezta. Antolatzaileak pozik daude aretxabaletarren erantzunarekin.

Gogorarazi dute lehenengo aldia dela horrelako kanpaina bat antolatzen dutela. Hala, ez dute baztertzen kanpaina berriro egitea.

> ESKORIATZA

Maite Franco ipuin kontalaria izango da eguen arratsaldean herriko liburutegian

Datorren egunean, maiatzak 29, ipuin kontaketa izango da Eskoriatzan. Maite Franco kontalariaren ipuineta gozatu ahal izango dute etxe txikienek. Francoren emanaldira hiru urtetik gorako umeak joatea gomendatu dute.

Ipuin kontaketa liburutegian izango da; Haurtxotekan, hain zuzen ere. Esan bezala, egunean izango da hori; 18:00etan emango diote hasiera eta 50 minuti inguru iraungo du. Eskoriatzako umeendako ezaguna da Franco; behin baino gehiagotan egon da eta ipuinak kontatzen. Udalak antolatutako maiatzerako kultura egitarauaren barruan dago ekimen hori. Liburutegiko arduradunek 40 haur baino gehiago espero dituzte.


BASABE jatetxea



Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta

IRIARTE

Umeen denda
•
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta

ELGETA > ASTE BERDEA

Uraren erabilerarekin lotuta hainbat eskaera

Lehen hezkuntzako eskola umeek konpromisoak hartu eta eskatu dituzte ur kontsumoarekin lotuta

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aste Berdearen barruan, Elgetako eskola umeek hainbat eskaera, proposamen eta kezka plaza ratu dizkiete Oxel Erostarbe alkateari eta hezkuntza batzordeko burua den Rebeka Uberari. Uraren erabilera arduratsuarekin lotuta hainbat konpromiso hartu dituzte, baina baita eskatu ere.

Elgetako eskola umeek inguruneaz kezkatuta daude eta Tokiko Agenda 21 programaren barruan landutako gaiak azaldu dizkiete udal ordezkariei. "Uraren erabilera diagnostikoa

gauzatu dugu", adierazi dute udaletxeko pleno aretoan egindako saioan. "Urari ematen zaion traera ere aztertu dugu bai ikastetxe barruan zein herri mailan".

ESKAERA ZEHATZAK ALKATEARI

Herriko txorrotetan ura aurrez-teko tresnak jartzea eskatu diote haurrek Oxel Erostarbe alkateari. Gainera, komuneko zisternak bi botoiekin jartzea eta eskolako iturri guztiak berrikustea eskuatu dute. Bestalde, iturri batek itogina badu lehenbailehen konponzea eskatu diote alkateari.

Alkateak erantzun die herriko iturriak konpontzeko konpromisoa hartzen duela. Eskaera bat ere luzatu die, ordea. Iturriak ondo erabiltzeko. Udalarenak diren eraikin guztiak txorrotetan, bestalde, ur kontsumoa murizten duten erreduktoreak edo difusoreak ipiniko dituztela agindu die alkateak.

HAURREN KONPROMISOAK

Eskolako umeek, berriz, zortzi konpromiso hartu dituzte; besteak beste, bainatu beharrean dutxatu egingo dira, garbigailua arropaz beteta dagoenean jarriko dute, iturrien erabilera egokia egingo dute eta autoak garbigai lu berezietan garbituko dituzte.



Gatzagatik pasatzen den errepeidea konpontzen dabil Aldundia.

MIRIAN BITERI

LEINTZ GATZAGA > DIRULAGUNTZAK

Hamaika milioi euro bideratu ditu Aldundiak herrira

Udalak ez dauka dirulaguntza horien berririk, eta orain artean diru gutxi jaso izan dutela Foru Aldunditik adierazi du alkateak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoako udaletara zenbateko dirulaguntzak bideratuko dituen 2008an jakinarazi du oraintsu Aldundiak, eta Gatzagara 11 milioi eurotik gora iritsiko direla esan du. Zuzeneko dirulaguntzen bitartez 313.961 euro emango ditu; azpiegiturara bideratuko dituenak, 10.608.990 euro izango dira; eta Udal Finantzaketa Foru Fondotik jasoko duena 236.031 euro. Elgetak, Antzuolak eta Oñatik baino gehiago jasoko du guztira Debagoieneko herri txikienak.

DIRULAGUNTZA GUTXI

Gatzagako alkate Eusebio Villarek ez dauka laguntza horien berririk, eta herrira bertara zenbat iritsiko den ikusi egin beharko dela adierazi digu: "Azpiegiturara bideratu dute na autobideko lanetarako izango da seguru asko, hortaz, herri tarrok ez dugu ezer ikusiko". Aldunditik oso diru gutxi jasotzen duela Udalak gaineratu du: "Orain arte trabak gehiago izan dira laguntzak baino. 1.000 biztanletik beherako herriek dirulaguntza gehiago jasoko dutela orain diote, ea hala den".

ANTZUOLA > LEHIAKETA

Balkoirik apainenak saria jasoko du

Herriari estetikoki itxura polita emateko lehoetan eta balkoietan loreak eta landareak ipintzeko gonbitea egin die Udalak herritarrei

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Balkoi eta Leihotako XII. Lore Apainketa Lehiaketa antolatu du Udalak. Lehiaketa horren helburua da balkoiak eta leihoa ahalik eta txukunen izatea, loraz eta landarez apainduta. Izan ere, herriari estetikoki itxura polita ematen dio etxeetako kanpoko aldeak loren janzeak.

Antolatzaleek esan digute nez, urte gehienetan etxebizitzak berdintsuak direla apainketan ahalegin berezia egiten dutenak. Hala ere, saiatzen dira sarituak beti berdinak izan ez daitezten. Izan ere, baliteke etxebizitzak batzuek dauden tokian

daudelako edo balkoiak zein leihoa alde eguzkitsuagoan dituztelako besteek baino gehiago edertzea. Horretarako auzo ezberdinan arreta ipintzen dute besteak beste herritarren ahalegina saritzeko.

Udaleko ordezkariek ardu ratzen dira 90 euroko sariak zein herritarri emango dizkie ten erabakitzearaz. Horretarako sari banaketa baino egun batzuk lehenago herrian barrena egingo dute bueltatxo eta atentzioa ematen dieten leihoa eta balkoiak zein diren esango dute. Sari banaketa ekainaren 23an egingo dute.



Lehen hezkuntzako eskolako umeak udaletxeko pleno aretoan.

L.Z.

ARAMAIO > KULTURA ETA JAIAK

Jai batzordeak bilera egingo du gaur udaletxeko pleno aretoan

Jai batzordeak bilera egingo du gaur eta kultura batzordeak datorren astelehenean, ekainaren 3an

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Bilera irekia egingo du Jai batzordeak gaur 19:30ean udaletxeko pleno aretoan. Herritarrekin batera egiten duten hirugarren bilera izango da gaurkoa. Izan ere, aurten jaietako giroa berpiztu eta egitarau berezia

antolatu nahi du Udalak. Horretarako herritarren parte harteza eta implikazioa ezinbestekoak direla uste dute. Hori horrela, herritarrei hemendik eta jaietara bitartean egingo dituzten bileretan parte hartzeko deia egin die Jai batzordeak.

KULTURA BATZORDEA

Kultura batzordeak, bestetik, datorren astelehenean egingo du bilera, ekainaren 3an. Hori ere irekia izango da eta edozein herritarrek parte hartu ahalko du bertan. Bilera horren helburua da herriko kultura ekintzak

antolatzea eta urteko programa zehazten joatea. Kultura batzordeak herriko kirol taldeak eta kultura elkartek batu nahi ditu astelehenean egingo duten bileran. Asmoa da urteko kultura programa herriko talde eta elkartek elkarlanean osatzea. Orain arte, elkarrekin bakoitzak bere programa propioa egiten zuen. Helburua da, beraz, Aramaiorako urteko kultura agenda zabala egituratzea, herriko taldeek antolatutako ekimen desberdinak batuko dituena. Bilera esan bezala ekainaren 3an izango da, 19:00etan.

Kirola



> ALOÑA
Garaipen batekin agurtu zuten Azkoagaineko berdegunea > 16



> ATLETISMOA
Peter Kirui eta Sarah Kerubo garaile Oñatiko lasterketan > 19



> ELKARRIZKETA
Patxi Bedia Numanciako fisioterapeuta arrasatearra > 20

MENDIKO LASTERKETA > VII. ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA

Kilian Jornet kataluniarra izan da azkarrena berriz ere



GIRO BIKAINA Zaleek ez zuten hutsik egin; gogotik animatu zituzten lasterkariak.

XABIER URTZELAI

ESANAK

"Ia-ia ez dago korrika egin beharrik ere, jendearen animuek eramaten zaituzte aldapan gora eta behera"

Kilian Jornet > Irabazlea

GOIAZT ARANA > BERGARA

Bikain joan zen atzo Zegama-Aizkorri maratoiaaren zapzigarren edizioa. Aurreko egunetan botatuko euria eta eguraldi iragarbea tarteko, antolatzaleek ibilbide alternatiboa ere gertu zeukan, badeazpada, baina ez zen horretarako beharrik izan; sekulako lokazioa zegoen, baina temperatura aproposa zen korrika egiteko. Lokatzak, hori bai, zaildu egin zuen pausu zehatzak ematea eta harrizko gailurak labainkor zeuden oso. Arrazoi horregatik, korrikalari bat baino gehiagok esan zuten atzoko eguna ez zela aproposena marka ona egiteko.

"Helmuga zeharkatzea lortu dugun guztiak gaude fisikoki egoera onean, eta buruz oso-oso gogor"

Corinne Favre > Lehen emakumea

IAZKO LEHIA BERBERA

Gironako Kilian Jornet gazteak lortu zuen garaile izatea, bigarren urtez jarraian, baina gertutik jarraitu zuen bigarren postua erre-pikatu zuen Raul Gartzia segoviarak. Lasterkari bien arteko lehia iazkoaren oso antzekoa izan zen: maldan gora Jornet ibili zen bizkorrago, baina aldapan behera bien arteko aldea txikitzea lortu zuen Gartzia, aldiro. Hamabi segundotako tartea atera zion azkenik, iaz baino zertxobait handiagoa. Momentuko mendi lasterkirik onenak direla erakutsi zuten biek ala biek eta ikuskizun bikaina eskaini zuten.

"Sekulako lokazioa zegoen eta denak ez bada ere, ia denak ibili gara lurretik bueltan. Zaila izan da aurrera egitea"

Joxe Mendiola > 2. debagoiendarra

Helmut Schiessl alemaniarrak izan zen hirugarrena; Fulvio Dapit italiarra laugarrena; eta bosgarren eta seigarren postuetan sailkatu ziren Jose Felipe Larrazabal Okondokoa (Araba) eta Javi Olabarria orozkoarra (Bizkaia). Lagun biak taldekoideak direla eta jokoan ezer ez zutela kontuan izanik, elkarrekin helmugaratzen ziren, ikurrina eskuetan. Taldeka, Euskal Herriko Selekzioa sailkatu zen lehen postuan, Europako txapelketa eskuratuz.

2006ko irabazole Ricardo Mejia mexikarrak ere eman zuen zeresanik atzo, helmuga zeharkatzen bosgarrena izan bazen ere, ibilbidea azaldu zigu, eta lanean jarraikorra izateak fruituak eman zituela; horren adierazgarri da, zaitasunak zaitasun, inoiz bai-

deko une batean nahastu egin zela eta, ondorioz, kontrolgune bat salto egin zuela aitortu baitzuen. Hiru minutu kenduz zigortu zuen epaileak eta zapzigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Humoretsu hitz egin zuen hala ere, eta agerian utzi tranpa egiteko inolako asmorik ez zuela; antolakuntzakoek eta zaleek, guztiek esker-zioten egia aitortu izana.

EMAKUMEAK ERE GOGOR

Emakumezkoetan azkarrena Corinne Favre frantziarra izan zen, 2005ean eta iaz moduan. Atzoko Zegama-Aizkorri maratoian parte hartzen duen laugarren aldia zela kontatuz zigu, baina aurrengoa izan dela gogorrena, ibilbidearen egoera zela-eta. Arrazoi horregatik, aurreko urteetako marka 10 bat minututan txartu zuen atzo Frantziakoak. Emakume euskaldun azkarrena, bestalde, Alizia Olazabal irundarra izan zen, iaz bezala. Erritmoa zainduz eta burua erabiliz osatu zuela ibilbidea azaldu zigu, eta lanean jarraikorra izateak fruituak eman zituela; horren adierazgarri da, zaitasunak zaitasun, inoiz bai-

sailkapenak

1. Kilian Jornet	3:59:33
2. Raul Gartzia	3:59:45
3. Helmut Schiessl	4:05:38
4. Fulvio Dapit	4:08:17
5. Jose Felipe Larrazabal	4:14:33
6. Javi Olabarria	4:14:33
7. Ricardo Mejia	4:16:42
8. Aritz Kortabarria	4:20:17
9. Agusti Roc	4:20:20
10. Paolo Gotti	4:20:22
38. Joxe Mendiola	4:47:31
52. Juanma Martinez	4:56:17
65. Aitor Larrea	5:00:58
70. Aitzol Guridi	5:03:01
88. Jabi Martinez	5:10:02
116. Bittor San Jose	5:17:23
137. Gotzon Aranguren	5:25:47
159. Iban Isasti	5:34:10
168. Xojan Larrea	5:35:39
172. Xabier Uribelesgo	5:35:55
189. Mikel Navarro	5:43:06
190. Jesus Odriozola	5:43:21
203. Josu Gascon	5:49:05
206. Xabier Lijo	5:50:04
228. Iker Agirrebalzategi	5:56:25
243. Aitor Elkoro	6:03:55
266. Iñaki Bengoa	6:11:53
291. Xabier Iñurrategi	6:24:59
296. Xabier Elkoro	6:26:58
305. Bixente Pagaldai	6:34:04
348. Asier Lasa	6:56:25
355. Marifran Alonso	6:59:53
388. Iban Aranguren	7:32:28

Negrizat, debagoiendarrak

no denbora hobea egin izana: bost ordu, 17 minutu eta 38 segundo.

ARITZKORTABARRIA, ZORTZIGARREN

Aritz Kortabarria arrasatearrak marka polita egin zuen atzo, lehen hamarren artean geratuz. Berarekin, 24 dira atzo helmugaratutako debagoiendarrak (390 izan ziren orotara). Bakarra izan zen emakumezko, Mari Fran Alonso arrasatearra, hain zuzen ere.

DATORREN URTERA BEGIRA

Alberto Aierbe Zegama Aizkorri maratoiko Zuzendari teknikoak oso balorazio positiboa egin zuen: "Giro bikaina izan da, maila ikaragarria eta lesio larririk ez", kontaktu zigu. Datorren urtean, ziurrenik, berriz ere Munduko Txapelketan izango direla aurreratu zigu, baina saiatuko direla proba maiatzean egiten. Izan ere, irailean, denboraldia amaitzear egoen da eta lasterkariak, nekatuta.



Aloñak 2-0 irabazi zion Touringi zapatuan. Argazkian, Xabi Camino Aloñako aurrelaria bigarren gola egiteko unean, Touringoko atezaina lurrean zela. JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > PREFERENTE MAILA

Azkoagaineke berdegunea eta liga agurtzeko etxeko garaipena

ALOÑA MENDI
2-0
Touring

Aloña Mendi > Gorka Otamendi, Julen Barrena, Xabi Elgarresta (Mikel Palacios, 85. min.), Andoitz Blain, Xabi Agirre (Unai Agirre, 70. m.), Josu Juaristi, Iñigo Arregi, Mikel Sanchez, Iker Olalde (Xabi Carpintero, 82. min.), Jon Astigarraga (Roberto Idigorras, 70. min.) eta Xabi Camino (Iker Aramendi, 88. min.).

Touring > Arzola, Perez, Carrillo, Elizalde, Sanchez, Plata (Salinas, 80. m.), Caballero, Benito, Serrano, Celiaueta eta Lopez.

Bestelakoak > Azkoagaineke berdegunea eta liga agurtzeko partida, 250 ikusle inguru. Bi taldeek elkarrekin zelaratu ziren. Euri jasa hasierako minutuetan. Sanz epaileak txartel horia atera zien Elgarrestari eta Elizalderi.

EDU MENDIBIL > OÑATI

Azkoagaineke berdegunearen agurriean, ez ziren euria eta guardasolak falta izan Oñatin. Oñatiarek garaipen batekin agurtu zuten liga, jadanik jaitsita zegoen Touringi 2-0 irabaziz. Bigarren itzulian dezente sufritu ondoren, sailkapenaren erdialdean bukatu du Aloñak, 45 punturekin. Galdu-tako partiduak irabazitakoak baino gehiago izan dira: 13 irabazi eta 12 galdu ditu Josu Zubiaren taldeak. Aloñaren entrenatzaileak ez zuen zapatuan taldea zuzentzerik izan, ezkontza zuelako.

Zita berezia zen zapatuko eta makina bat ikusle argazki kamerarekin hurbildu ziren Azkoagainera, partiduan zehar eta amaieran erretratuak ateratzeko.

Hurrengo denboralditik aurrera etapa berri bat ekingo dio Aloñak: belar artifiziala izango dute Azkoagainen. Azken partiduan itxura ezin hobea zuen berdeguneak; nahiz eta hasierako minutuetan sekulako euri jasa bota, futbolean aritzeko primeran zegoen zelaia. Futbolari askoren bota-arrastoak ederto jasan ditu 1949tik hona.

BI GOLAK, BIGARREN ZATIAN

Zapatuko partiduari dagokionez, bi taldeek inolako presio barik jokatu zuten. Touring jaitsita zegoen eta Aloñak helburu bakarra zuen: zaleei azken garaipena eskaintza. Denboraldian zehar izan dira Oñatin Touring baino itxura eskasagoa eman duten tal-

deak; erreteriarrek gol aukera ederra izan zuten 42. minutuan, Celiauaren hanketan. Aurretik, baina, Aloñak aukera bikotza izan zuen 30. minutuan Arregi eta Caminoren bitarte. Gelditu bikainak egin zizkien biezi Arzolak. Atsedenaldiaren aurretik, lehen gola kantatzeko zorian egon ziren zaleak, baina Olalde defentsaren burukadak langan jo zuen.

Bigarren zatian Aloña izan zen nagusi zelaian, baina 72. minutura arte ez zen gola iritsi. Sanchezek sartu zuen bere atean. Partidua amaitzean zela, futbola utziko duen Xabi Caminok bigarren egin zuen. Agur polita Caminorentzat. Aloñak helburua beteta, Korpus jaietan murgiltzeko ordua iritsia zen.

FUTBOLA > 2. ERREGIONAL MAILA

Mailaz igotzea lortu dute Mondra eta BTLS taldeek

LARRAITZ ZEBERIO > BERGARA

Egun polita izan zen zapatua Mondra eta BTLS taldeetako jokalariendako. Hil edo biziko jardunaldi batean, biek lortu zuten irabaztea eta ondorioz lehenengo erregional mailako taldeak izango dira datorren denboraldian.

Bergararrak sailkapeneko lehenengo postuan amaitu dute igoera fasea eta bigarren egindute Arrasatekoek. "Oso pozik gaude", adierazi du BTLS taldeko entrenatzaile Jose Luis Beitiak. "Denboraldiko helburua gauzatu dugu, mailaz igo gara.

Orain, Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko dugu Sanpedrotarrak taldearen aurka. Polita izango litzateke irabaztea".

Partidu gogorra izan zuen BTLSk Kostkaren aurka. Bederatzi jokalariirekin amaitu zuten. Urko Irizarrek egin zuen partiduko gol bakarra.

MONDRA ERE GORA

Partidu errazagoa izan zuen Mondrak Landetxaren aurka. Bost gol egin zizkieten irundarrei, lau lehenengo 15 minutuetan. Pozik gaude, adierazi du Tena entrenatzaileak.

FUTBOLA > EMAKUMEZKOEN KOPAKO FINALA

Penaltietan galdu dute Kopako finala Mondrakoek

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Aurretik jarri ziren markagailuan, baina gutxi iraun zuen lasaitasunak. Mondrako neskek arerio gogorra zuten aurrean eta gainera etxetik kanpo jokatu zuten.

Maialen Lopezen gola (15. min.) ez zen nahikoa izan etxe-koak kikiltzeko. Hogeitako minutu iraun zuen pozak. Amara-Berrik berehalera berdindu zuen-eta mar- kagailua, 35. minutuan.

Penaltietan erabaki zen finala. Bost egin zituen Amara Berrik eta lau Mondrak. "Pena handia izan da", adierazi du Iñigo Zaba-

lo entrenatzaileak. "Ez gaude finalak jokatzera ohituta eta nabaritu egin zaigu. Urduri jokatu dute neskek, partidu kaxkarra egin dugu".

Lur jota amaitu zuten partidua arrasatearrek, bat baino gehiagok negarrez. Final bateraino heldu eta penaltietan galtzea gogorra da.

NESKAK BEHAR DITUZTE

Datorren denboraldira begira daude dagoeneko Mondrak. "Helburua igoera fasea jokatzeko izango da, baina larri samar gabiltza. Neskak behar ditugu".

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	70	34
2. Berio	68	34
3. Trintxerpe	67	34
4. Real Union	62	34
5. Ondarroako Aurrera	53	34
6. Aretxabaleta	50	34
7. Mondra	47	34
8. Aloña Mendi	45	34
9. Hondarribia	44	34
10. Hernani	43	34
11. Euskalduna	43	34
12. Anaitasuna	41	34
13. Idiazabal	39	34
14. Zumaiako	38	34
15. EHU Vasconia	36	34
16. Eibartarrak	29	34
17. Zestoa	29	34
18. Touring	26	34

Emaitzak

Anaitasuna-Hernani	3-1
Idiazabal-Trintxerpe	2-3
Zestoa-Mondra	1-1
Aloña Mendi-Touring	2-0
EHU Vasconia-Ondarroako Aurrera	1-2
Real Union-Aretxabaleta	1-2
Hondarribia-Euskalduna	4-0
Berio-Ordizia	4-0
Zumaiako-Eibartarrak	3-2

BESTELAKOAK

BIGAREN ERREGIONALA,	
IGOERA FASEA	
Landetxa-Mondra	0-5
Kostkas-BTLS	0-1
Aretxabaleta-Oiartzun	4-1

OHOREZKO GAZTEAK,

IGOERA FASEA	
Aretxabaleta-Beasain	3-2
Bergara-Union Txiki Touring	4-1

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Beti Gazte-Aloña Mendi	2-2
Mondra-Martutene	

LEHENENGKO MAILAKO GAZTEAK,

IGOERA FASEA	
Aretx.Arizmendi B-Luberri	3-1

OHOREZKO KADETEAK,

IGOERA FASEA	
Aloña Mendi-Hernani	1-1
Real Sociedad B-Bergara	10-0

HIPOTECA *Berdea*

Lehen aldiz,
energia aurrezten duen etxeak
dirua ere aurreztuko dizu hipotekan.



1.000 €rainoko deskontua egingo dizugu zure hipotekan.

Kutxaren Etxebitzta-Zerbitzuan gehien komeni zaizun hipoteka eskaintzeaz arduratzen gara eta zure neurriako finantzaketa diseinatuko dizugu, hasi eta buka, erosketako prozesu osoan aholkua emango dizun gure kudeatzaile pertsonal baten laguntzarekin.

Baina, gainera, **kutxan ingurumena zaintzeaz kezkatzen gara.**

Horregatik, **energetikoki eraginkortzat kalifikatutako etxea erosten edo eraikitzen baduzu, 1.000 eurorainoko deskontua izango duzu**, edozein delarik ere aukeratzen duzun hipoteka mota.

Horrelakoa baita gure **Hipoteca Berdea**, errespetuzkoa ingurumenarentzat, eta ona zure poltsikoarentzat.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

SASKIBALOIA > 3X3 TXAPELKETA

Euriaren erruz, atzeratu egin behar izan dute txapelketa

Arratsalde erdian botatako euri jasak putzu bihurtu zuen Arrasateko Laubide plaza eta ezinezko egin zuen jokatzen jarraitzea

GOIATZ ARANA > BERGARA

Martxa onean zihuan eguna, baina ezin izan zen behar bezala amaitu: ordua baino lehen eta aurreikusitako partidu guztia jokatu barik eman behar izan zuten amaitutzat txapelketa.

Euria 16:40an hasi zuen. Orduan kantxaratuta zeuden neska-mutikoek ekin zioten jokoari baina, nola botatzen zuen ikusita, antolatzaleek atseden hartzera deitu zitzuten, atertzen zuenean jarraituko zuten itxaropenarekin. Baina ez zen halakorik geratu: 20 minututan, putzu bihurtu zen Arrasateko Laubide plaza eta, egoera horretan, ezinezkoak zen aurrera egitea; iritzi berekoak ziren neska-mutikoak eurak ere, baldintza horietan jokatze-rik ez zegoela zioten. Hala, bere horretan utzi behar izan zuten

txapelketa, erabakia pena handiz hartu bazuten ere: "Gerta zitekeen gauzarik okerrena gertatua", esan zigun Gorka Gabilondo Leintz Eskola Kiroleko koordinatzaileak.

HASITAKOA BUKATUKO DUTE

Zapatuan hasitako txapelketa egunean bertan amaitu ez izanak ez du esan nahi, ordea, bertan behera geratu denik; zintzilik geratu ziren 32 partiduak jokatuko dira. Hala jakinarazi dute antolatzaleek. Ahalik eta azkarren izan dadin ahaleginduko dira gainera, baina eguna eta ordua zehazteke daude oraindik. Dagoeneko erabakita dagoena tokia da: Iturripen jokatuko dira partiduak, Laubide plazan beharrean. Zapatuan jokatu ziren 165 norgehiagoketako emaitzak ain-

tzat hartuko dituzte eta txapelketari, eten behar izan zuten une-tik bertatik berrekingo diote. Bukatutakoan, sari banaketa ekitaldiaren txanda izango da eta, talde irabazoleendako ez ezik, parte hartzaile guztiendako izango dira sariak. Antolatzaleek ikastetxeen bidez emango diente ikasleei hitzordu horren berri.

500 HAUR

Arrasate Ointxe! Saskibaloit Elkartea eta Leintz Eskola Kirola dira 3x3 txapelketaren antolatzaleak eta aurtengoa bederatzigarren edizioa da. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaioko 500 haur inguru mugiarazi ditu; orotara, 115 talde, kategoria ezberdinan banatuta.

Txapelketak bildu duen ume eta guraso mordoak agerian uzten du saskibaloia momentu ona bizi duela; bai behintzat, Leintz bailaran. Alde horretatik, oso balorazio positiboa egiten dute ekimenaren bultzatzaileek.



Arazo barik jokatu zuten lehenengo zatian.

JOSETXO ARANTZABAL

EUSKAL HERRIA
www.euskalherria-aldirizaria.com
revista de montaña, cultura, naturaleza y viajes
montaña, cultura, naturaleza, viajes alpinismo.
aurkezten du

Mundumira
munduko kulturen festa

IV mendi azoka

ekainak 6/7/8
Bergara-Debagoina

Giroa berotzeko...

Ikusentzunezkoak

Maiatzaren 28an,
Birmaniako ume soldaduak: ATIHSA kultura elkartea tibetarra.
19:30ean Elgetako Espaloia kafe antzokian

Ekainaren 2an,
ALAMITOU. Garapena Mozambiken. Emakumezkoen aldeko apustua. Posible al da?
19:00etan Eskoriatzako Ibarraundi kultur aretoan.

Ekainak 3an,
Euskal Herria bizikletaz: Nire lehen bidaia. Mikel Bringas.
19:00etan Antzuolako Olaran etxearen

i www.mundumirafesta.com
info@mundumirafesta.com
902 181 471

ATLETISMOA > VI. NAZIOARTEKO HERRI LASTERKETA

Peter Kirui eta Sarah Kerubo garaile

Afrikarrak jaun eta jabe zapatuan Oñatin egindako herri lasterketan; hala ere, ez zuten 27:54ko errekorra hausterik lortu


Lehen euskalduna Imanol Cruz donostiarra

MAIDER ARREGI > OÑATI

Peter Kirui Kenyarrak (29:12) nagusitu zen Oñatiko Nazioarteko Herri Lasterketan. Bigarrena helmugaratzen Jacob Yator kenyarra izan zen (29:18). Bi afrikarrak lasterketaren buru izan ziren une oro. Emakumezkoetan ere, Sarah Kerubo kenyarra izan zen nagusi (34:55). Bigarrena Fatima Ayachi (35:46) marokoarra izan zen. Helmugaratzen lehen euskalduna, berriz, Ainhoa Sanz (39:16) izan zen eta Maria Jesus Velasco arrasatearra seigarrena (44:27).

Helmugara iristen lehen euskalduna Imanol Cruz donostiarra izan zen (31:30). Lehen oñatiarra, berriz, Asier Osinaga (34:45). Osinaga pozik azaldu zen egindako denborarekin. Izan ere, iaz baino minuto bat gutxiago egitea lortu baitzen. Hirugarren aldiz hartu zuen Osinaga oñatiarra lasterketan parte. "Oso gustura egiten dut lasterketa hau, gainera ondo ezagutzen dut 10 kilometroko ibilbidea. Lasterketa osoan zehar erritmoa mantendu dut, baina azken hiru bueltan indartu egin dut erritmoa. Oso pozik nago iaz baino minu-

tu bat gutxiago egin dudalako eta nire marka hobetu. Maila oso altua dute afrikarrek eta horrelako lasterketetan beti aurretek ibiltzen dira". Ritzar Fernandez oñatiarrak zorte txarragoa izan zuen, lasterketatik erretiratu zen eta. "Egun txarra izan dut; lanean eta antolaketa lanetan ibili naiz egun guztian zehar eta lasterketan nekea nagusitu da. Konzentrazio falta nuen eta erretiratzea erabaki dut". Bestalde, lasterketa oso polita izan zela adierazi zuen Fernandezek. "Mai-



Peter Kirui nagusi JOSETXO ARANTZABAL

la oso altua dago eta lasterketa polita izan da. Imanol Cruz eta Asier Cuevas bezalako lasterkarien maila bikaina jarri diote".

ASIER CUEVASI OMENALDIA

Asier Cuevasek (31:33) ere lasterketa bikaina egin zuen eta bigarren euskalduna izan zen helmugaratzen. Hala ere, Cuevas eibartarrak bere onenean ez zegoela adierazi zuen. "Maila hobea ematea nahi nuen, baina ahal nuen azkarren eta gogorren egin dut korrika. Afrikarrak oso indartsu ikusi ditut. Lasterketa azkarra izan da, espero zena hasieratik. Afrikar talde bat genuen aurretek, lasterketaren buru eta atzetik euskaldun pare bat gindoazen afrikar eta marokoarrekin batera. Gure taldea apurtzen joan da eta azken esprintera heldu naiz. Txalotzekoa da ere animoak ematen Kale Barriatik gora egon den jende-tza". Lasterketaren ostean, omenaldi hunkigarra egin zioten Cuevasi, Espainiako maratoiko irabazleari. Pozik eta hunkituta azaldu zen. Izan ere, detaileren bat espero zuen, baina Cuevasek omenaldi eta jendearen harrera beroa jaso zuen.

BALORAZIO POSITIBOA

Jexux Arregi antolatzaileak parte hartze handia azpimarratu du. Guztira, 82 lasterkari aurtengo edizioan, inoiz baino parte hartzale handiagoa. Balorazio positiboa egin zuen Arregik.



Guztira, 82 lasterkarik parte hartu zuten herri lasterketan

JOSETXO ARANTZABAL

Sailkapen Orokorra

	DENBORA
1-Peter Kirui (Kenya)	29:12
2-Jacob Yator (Kenya)	29:18
3-James Mipei (Kenya)	29:38

Lehen euskaldunak

	DENBORA
9-Imanol Cruz (Donostia)	31:30
10-Asier Cuevas (Eibar)	31:33
11-Jon Arozana	31:53
21-Tasio Gomez (Aloña Mendi)	34:42
22-Asier Osinaga (Atxintxiketan)	34:45
23-David Huebra (Aloña Mendi)	34:48
33-Iñaki Pelayo (Oñati Triatlooi Taldea)	36:43
44-Iban Perez (Oñati)	40:42
44-Agustin Otxoa (Oñati)	40:54
44-Alejandro Altuna (Arrasate A.T.)	44:26

PILOTA > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Azpeitiak erabakita utzi zuen kanporaketa

Hiru partiduak galdu, miraria beharko dute bergararrek kanporaketari buelta emateko


EDU MENDIBIL > BERGARA

Azpeitiaren kontra 0-3 galdu ondoren, Bergarak agur esan zion egubakoitzean Herri Arteko Txapelketari. Azpeitarrek argi utzi zuten Udal Pilotalekuaren txapelketa eskuratzeko faborito nagusietako bat direla. Joan zen urtean moduan, bergararrak final laurdenetaraino iritsi dira aurten. Iazko ekitaldian Ataunek kanporatu zuen Bergara. Reyes Azkoitiaren taldeak miraria beharko du datorren egubakoitzean azpeitarrek kanporatzeko; irabazteaz gain, abantaila handia lortu zuten azpeitarrek

egubakoitz iluntzean jokatutako hiru neurketetan.

ZALEEN ANIMOAK NAHICO EZ

Ikusle ugari eta giro polita izan zen Udal Pilotalekuaren, baina zaleen laguntza ez zen nahikoa izan kanporaketa aurrera ateratzeko. Kadete mailan, Andoni Fernandezek eta Iñaki Diezek 4-22 galdu zuen. Azpeitarrek bikoteak aise irabazi zuen partidua. Gazte mailako Jon Perezek eta Ander Larreategik egin zuten partidurik oneña etxekekoen partetik, 15-22 galdu arren. Biek ere partidu ona egin



Gazte mailako Perezek eta Larreategik jardun zuten ondoen etxekekoen partetik.

JOSETXO ARANTZABAL

zuten Azpeitiko ordezkarien aurka. Itxaropen handiena senior mailako partiduarekin zuten etxekeko, baina Ander Muguruzak eta Joseba Herranek partidu txarra egin zuten, 10-22 galduz. 1-7

aurreratu ziren bisitariak eta 7na berdinindu zuten bergararrek, baina 17raino jarraian joan ziren etxekekoak. Herranek etxekekoen importazio azaldu zuen amaieran, eserleku bati ostikoa emanda.

Esan bezala, itzulerako partiduak egubakoitzean, hilaren 30ean, jokatuko dira Azpeitian, 22:00etan. Gutxienik partidu bat irabaztea da mahoneroen helburua.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Pakitobezala ezagutzen dute Zigorrolan Patxi Bedia. Fisioterapia ikasketak egitera joan zen Soriara 43 urteko arrasatearra eta han geratzen. Beti ibili da futbol munduan; lehen jokalari bezala eta orain fisioterapeuta. Numanciatadearen arrakastaz berba egin du.

Lehenengo eta behin, zorio-nak!

Eskerrik asko! Liga guztietan bezala, momentu zailak pasa ditugu. Bainak, azkenean igotzea lortu dugu eta sekulako poza daukagu.

Denboraldi hasieran jarritako helburua bete duzuela esan daiteke?

Soria oso hiri txikia da; guztira 35.000 biztanle besterik ez ditu eta, probintzian 90.000 inguru. Hortaz, gure helburua mantenitzea izaten da beti. Bainak, azkeneko bederatzi urteetan hiru aldiz igo gara lehenengo mailara. Hortaz, hobe da mantentza izatea helburua.

Zer suposatzen du Numancia bezalako talde batendako lehenengo mailara igotzea?

Sekulako poza da. Hiriaren-dako batez ere, garrantzi handia dauka; baita elkarrearen-dako, baina hiriaren-dako gehiago.

Sekulako giroa sortzen da hemen. Orain arteko hiru igorri-tan jende guztia atera izan da kalera. Herritarrok harro sentitzen dira.

Gainera, Castilla Leongo autonomian Valladolid bakarrik dago lehenengo mailan. Hortaz, harro egoteko da.

Soria existitzen da.

Hori da, hemen gaudela esateko balio du horrelako arrakasta batek. Errepide aldetik oso egoera kaskarrean dagoen probintzia da; hortaz, aldarrikapenak egiteko balio du egoerak.

Gainera, 2. mailako aurrekontu baxuenetarikoa du taldeak.

Guretako garrantzitsuena elkartea ondo egotea da. Oinarritik hasita. Presidenteak, Francisco Rubiok, oso lan ona egiten du. Nik uste dut hor dagoela gakoa. Dirua ez da alperrik galtzen. Inbertsio handirik ez da egiten; hona datorren jokalariak badaki zenbat kobratuko duen, baina emandako hitza bete egiten da. Beste elkartea batzuetan arazoak dituzte eta jokalariek ez dute hitzartutako jasotzen. Txikiak gara baina oinarri sendoa dugu. Hori da sekretua.


Nola heldu zinen Numancia taldera?

Ni izatez zigorrolarra naiz, Arrasateko. Mondran, Alave-

"Soria hiri txikia da eta horregatik sekulako garrantzia dauka horrelako arrakasta batek; jendea oso pozik dago"

Patxi Bedia > Numanciako fisioterapeuta

"Indar gehiagorekin jokatzen denez lesio gogorragoak daude"



Patxi Bedia zigorrolarra.

NUMANCIA

sen, Barakaldon, Durangon eta Sestaon jokatu nuen gazte garaian. Gero, IVEF egin nuen Gasteizen. Hiru urte eskolak emanen ibili nintzen Almenen.

Beti gustatu izan zait Fisioterapia, baina hori ikasterik ez zegoen Euskadin. Hala, Soriara etorri nintzen.

Eta, futbolean hasi zinen.

Bai, 30 urte nituen eta soldatuta bat behar nuen. Numancian futbolean jokatzeko aukera sor-tu zitzaidan eta hala sartu nintzen Numancia taldean, orain dela 14 denboraldi. Lehenengo

jokalari bezala ibili nintzen bi urtez; gero, prestataile fisiko ibili nintzen. Urte hartan, 2. A mailara igo ginen. Ordutik, fisioterapeuta lanetan nabil.

Zein da zure lana taldean?

Lesionatzen diren jokalari-kin egiten dut lan. Gainera, jokalaria osatzen denetik taldean sartzen den arte ere berarekin egiten dut lan. Taldean sartzeko jokalaria fisikoki ondo jartzea da nire lana. Gero, behin jokalaria taldean sartu denean, prestataile fisikoak egiten du lan harekin.

Gaur egun, lehen baino lesio gehiago egoten dira?

Gaur egun fisikoki gogorragoa da futbola. Alde fisikoa asko lantzen da; hala, indarra eta abiadura handiagorekin egiten da

"Entrenatzaile batek argi izan behar du non dagoen; horregatik, entrenatzaile guztiekin ez dute balio talde guztieta rako"

lan. Horrek dakar lesioak gogo-rragoak izatea. Bainak, lesioak beti egon izan dira.

Abantaila da, orain kirurgia oso aurreratuta dagoela. Lehen belauneko lesio batekin futbola utzi beharra zegoen. Bainak, orain, teknologia oso aurreratuta dago.

Zer moduzko entrenatzailea da Gonzalo Arconada?

Nire ustez, Arconada oso ondo sartu da elkartean. Ondo ulertu du zer den Numancia kluba. Talde bateko jende guztiak argi izan behar du non dagoen. Horregatik, entrenatzaile guztiekin ez dute balio talde guztieta rako.

Arconadak oso ondo ulertu du zer den hiria; gainera, oso serioa da entrenatzen. Profesional handia da, maila handikoa.

Numanciak Reala kopatik kanpo utzi zuenean, Numanciako jokalaria zinen.

Bai, hori da. Lehenengo mai-lako hiru talde kanporatu genituen. Realaren aurka etxean 2-0 irabazi genuen; gero, Anoetan 2-0 irabazi zuen Realak baina penaltietan nagusitu ginen. Ondoren, Racing eta Sporting kanporatu genituen. Gero, Bartzelonaren aurka galdu genuen.

Nire ustez, urte hori erabakigarria izan zen. Hori izan zen Numanciareni motorra.

Realzalea zara, baina.

Bai, betidanik. Arrasaten bizi izan nintzen 30 urte bete arte. Nire lagun guztiak ere Realekoak dira. Gainera, aukera izan nuen orduko Sansen jokatzeko. Bainak, azkenean Gasteizera joan nintzen.

Lehenengo mailan ikusiko dugu Reala?

Ea horrela den! Niretako poz handia izango litzateke. Betti jarraitu izan dut Realak. Gainera, Soriako jendeak oso harreman ona du Realarekin. Kalean, jende guztiak esaten dit ea Realak ere igotzen den.

Orain une onak bizi dituzue. Bainak, bizi izan duzu une txarrrik?

Bai, oso une txarrak bizi izan genituen lehenengo aldiz jaitsi ginenean lehenengo mailatik. Lehenengo mailara igo eta lehenengo urtean mantenitzea lortu genuen. Bainak, bigarren urtean, jaitsi egin ginen eta garai txarra izan zen. Betez ere ekonomikoki izan zen urte txarra. Inbertsio handia egin genuen, gaizki egin genituen gauzak eta une txarrak izan ziren. Gero, berriro igo ginen lehenengo mailara eta horri esker aurrera egin genuen. Eskerrak horri bestela taldea desagertzekoan egon zen.

Nola birziklatzen da fisioterapeuta bat?

Egia esan, fisioterapia alorean aldaketa asko ematen dira. Etengabe sortzen dira teknika berriak eta ikastaro ugari ematen dira. Betti duzu zure maila hobetzeko aukera. Horregatik da profesio polita. Betti esan izan dut denok dakigula idazten baina bakoitzak bere letra daukala.

OÑATI

Zapatu goizean lagunartean gozatzen Oñatiko Zubikoan

KIROLA PRAKTIKATZEN Lehenengo saskibaloian eta gero areto futbolean aritu ziren Oñatiko neska-mutikoak

EGURALDI KAXKARRA Oso ondo datorkie gaztetxoei kiroldegin sartu eta bertan kirol pixka bat egitea

IRRIBARRE BATEKIN Sartu eta irteten irribartsu dira kiroldigitik herriko neska-mutikoak, galdu nahiz irabazi

NEREA MENOR > OÑATI

Kirola egitea oso ona da osasuna-rentzat eta gaztetatik praktika-tzeko ohitura hartuz gero hobeagoa oraindik. Ibarreko gaztetxoeek badakite hori eta horregatik astero-astero eskola kiroleko ekin-zetara joaten dira. Ekipoko kamiseta jantzi, korrika egin, lagunekin elkartu, barre batzuk egin... zapatu goizerako plan ezin hobea.

Zapatuan, Oñatiko neska-mutikoekin igaro genuen goiz osoa. Goizeko 9:00etatik eguerdia arte Zubikoako kantxa berdea eta urdina gainezka egon ziren gaztetxoentzpartiduetan. Guraso eta lagunen txalo eta animoek giroa berotu zuten eta entrenatzaleak ere buru belarri sartuta zeuden partiduetan.

Umeek badakite partehartzea dela garrantzitsuena, ez irabaztea. Zein ondo pasatzen duten ikusita, askok jarraitu beharko lukete gaztetxo hauen eredu.

ENTRENATZAILE EZIN HOBEAK

Gaztetxoen entrenatzalek ekintza guztiak jarraitu zituzten. Zapatu-ro, aholkuak ematen dizkiete partidua hasi aurretik eta jokoan dauden bitartean. Baloia hanka edo esku artean dutenean animoak ematen dizkiete puntuak lortu ahal izateko. Oso harreman ona dute guztien artean eta dagoeneko oso ondo ezagutzen dituzte neska-mutikoak, bakoitzaren ikastola, eginbeharrok, zaletasunak... Builaka edo zalapartaka hasten direnean ere, entrenatzaleak dira gaztetxoak lasaitu eta antolatzen dituztenak.



Bisonteak. Xabik, Jonek, Julenek, Iñigok, Asierrek, Jon Anderrek eta Markelek elkarrekin jokatu zuten zapatuan.



Izeia taldea. Saioak, Leirek, Amaiak, Itziarrek, Aniak, Nagorek eta Mireiak talde berean jardun zuten.



Lizarra taldea. Eiderrek, Desireek, Guadalupek, Pamelak, Nereak, Leirek, Iratik, Gorettik eta Aierak osatzen dute taldea.



Txantxiku eskola. Elena, Ixiar, Amaiur, Nagore, Eider eta Miren batera aritu ziren zapatuko ekintzetan.

KIROL ASKO EGITEN DUZUE?



Jon Zelaia eta Iñigo Blazquez
Bisonteak



Amaia Ugalde eta Nagore Uribarri
Txantxikuak



Irati Madina eta Eider Fernandez
Lizarra

Saskibalo partidua amaitu berri zutela topatu genituen bi mutiko hauek. Lagunekin jolastera joan behar ziren, baina tartetxo bat egin ziguten kirolari buruz aritzeko. "Gehien gustatzen zaizkigu kirolak pilota eta futbola dira. Astean zehar praktikatzen ditugu biak eta baita asteburuetan ere, batzuetan partiduak izaten ditugu. Gaur saskibaloian ibili gara Zubikoan, eta oso ondo pasatu dugu".

Amaia eta Nagore Zubikoako kantxa berdean egon ziren areto futbolean jokatzen. Zertxobait nekatuta zeuden, korrika asko egin zuten partiduan, baina atseden hartzera joan aurretik gurekin egon ziren berbetan. "Futbola da gehien gustatzen zaigu kirola eta astean zehar asko praktikatzen dugu, asteburuau baino gehiago. Gaur oso ondo pasa dugu lagunekin areto futbolean jokatzen".

Izeien kontrako partidua amaitu berri zutela aurkitu geniten Irati eta Eider. Etxera joateko prestatzen zebiltzala galdera batzuk egin genizkien kirolaren inguruan". Saskibaloia da gehien gustatzen zaigu kirola. Ez dugu asko praktikatzen. Gaurkoan, areto futbolean ibili gara eta oso ondo pasa dugu, 6-6 amaitu da partidua. Barrakak jarri dituzte herrian eta gaur arratsaldean hara joango gara".

ZAHARRAK BERRI SAIOA



Zure intereseko elkarritzketak,
erreportajeak eta tertuliak
batzen dituen programa berria
daukazu **GOITBn**

Aste honetan:



NOIZ: maiatzak 28 eta 29

**NOR: Amaia Diaz de
Monasterioguren. Dietista**

**GAIA: Gernu aparatua eta
elikadura**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
Deitu programan zehar **943 00 08 34** telefonora



Ikustekoa!

Babeslea:






> OTABA JAIA

Omenaldi hunkigarria 'Egileor' bertsolariari Elosuko Otaba jaietan > **24**



> LATZEN

Hellmuga CD/DVD berria martitzenean aurkeztuko dute Bilbon > **24**



> ELKARRIZKETA

Lierni Agirrezabalai Kalaka saioko kazetariari elkarrizketa > **29**

Zaleak gustora hard-rockaren maisuen emanaldiarekin

Hard-rocka eta rock-and-rolla egiten maisuak dira Alaskako bi anaiak

Irribarretsua eta asetuta utzi zituzten ikusleak zapatuko emanaldiarekin

IKER BARANDIARAN > OÑATI
Gaur egun luxua da bost euroren truke kontzertu bat ikustea; are gehiago, bizkarrean hainbat disko daraman atzerriko taldea bada. Oñatiko gaztelekuari eta Gaztemaniak-ei zor diegu hori. Hala, AEBetako Supagroup taldeak eskainitako oso dotorea eta entretenigarria izan zen. Oñatiko jende gutxi batu zen, seguruenik herrian hardrock-arenganako tradizio txikia dagoelako eta gehienak Gorpuzti jaietan murgilduta zeudelako. Hala ere, giro oso beroa zegoen, batez ere Arrasateko eta Euskal Herriko beste hainbat txokotako zaleak gogo betez gelditu zirelako.

Supagroupen enborra Chris eta Benji Lee anaiak dira. Ustez (beraiek hala esan izan dute) Bruce Lee karateka handiaren seniartekoak, Alaskan jaio ziren, baina gerora Nueva Orleansera joan ziren rock-and-rolla bere horretan bizitzera. Orain arteko bidea ez da edonolakoa izan eta garbi erakutsi zigutzen zuzeneko piztiak direla: agertoki gainean disfrutatzearaz gain disfrutatu arazi ere egiten dute. Hasieratik jendea poltsikoa an sartu zuten, eta tarteka zur eta lur geratu ginen! AC-DCrekin egin izan dizkioten konparaketak egiazkoak dira: riff eta erritmo asko eta tarteka ahots tonua australiarren oso antzekoak dira, baina zenbait abestitan, melodikoenetan, Aeros-

mith gogora ekarri zizkigutent, eta beste batzuetan hastapenetako Guns N'Roses, besteak beste.

Bitxia izan zen sarritan "Eske-rrrik asko, Oñati" esan izana, jendearekin komunikatzeko ahalegin eta lorpenak egitea, eta abestien "txuleta" barik, Lee anaiak agindua eman eta taldeak kantuak irmotasun osoz jotzen zutela, zeharo engrasatuta dagoen talde bat dela erakutsita. Oinarri erritmikoa primeran, eta protagonismoa, neurrtua, bi anaiet eraman zuten: Chris frontman eta gitarra erritmiko moduan, komunikatziale ona, abeslari txukuna eta ikusleen oso gertukoak; eta Benji gitarrhero birtuoso eta ikusgarria, punteoen maisua.

Azkeneko disko *Fire hor hire* oso presente izan zuten, baita *Supagroup* izena duena ere, eta bisak jotzeko eskatu ostean, bost bat pieza eskaini zizkigutent gitarra soloekin, hondeatzaile-erritmoekin, koreografiekin eta baita ikusleen parte-hartzearekin jokatuz; tarteau, *What's your problem?* hit-a ere eskaini zuten. Ikusleak asetuta eta irribarretsua utzi zituzten, baina beste bi protagonista nabarmendu behar ditugu: lehenengo ilaran guztia eman zuen burusoil beteranoa, eta soinu-monitorre baten gainean kontzertu osoan lo-kuluxkak egiten pasa zuen neska. Biendako izan zituzten hitzak eta txantxak Soupagroupekoek.



SUPAGROUP Iuskizun bikaina eman zuen zapatuan Oñatiko Gazteleku Supagroup taldeak.

JOSETXO ARANTZABAL

OTABA JAIAK > 'EGILEOR' BERTSOLARIA OMENDU DUTE

'Egileor' bertsolariari omenaldi hunkigarria egin zioten auzokideek

Jesus Alberdi 'Egileor' bertsolaria izan dute gogoan Elosu auzoko Otaba jaietan; atzo omenaldia egin zioten; auzoko meza nagusian ere gogoratu zuten

MAIDER ARREGI > BERGARA
Elosuko auzotarrek gaur, astelehena, dute Otaba jaien egun handiena. Meza nagusian erretiratua eta *Egileor* bertsolaria omenduko dituzte 13:00etan. Ondoren, bazkaria egingo dute 14:30ean. Gaztetxoendako ere badago tokia Otaba jaietan; 18:00etan jolasak egingo dira. 20:30ean auzo afaria eta ondoren erromeria bereziarekin goizalderarte dantzaldia izango dute auzotarrek.

'EGILEOR' BERTSOLARI GOZOA
Askorentzat *Egileorrekin* zeukan ahotsik polit eta gozoena. Atzo egindako omenaldian horrelaxe gogorarazi zuen Jose Luis Gorrotxategi bertsolariak. "Zalantzak gabe, *Egileorrek* bertsolaritza munduko ahotsik goxoena zeukan. Bai bere bertsoak kantatzeko eta baita beste bertsolarien bertsoak kantatzeko ere. Lasai abesten zuen, hori ezaugarri zuen, gaur egun uste dut bertso guztiak berdin kantatzen direla,



Atzo 60 lagun inguru elkartu ziren *Egileori* omanenaldia egiteko Elosuko elizpean antolatutako sagardotegian.

MAIDER ARREGI

baina berak gora beherekin eta behar ziren etenaldiekin abesten zuen. Neurriarekin ere beti asmatzen zuen nahiz eta berak ez jakin bertso bakoitzak zenbat silaba zituen". *Egileorrek* belarritz egi zituen errima denak. "Nire

lehen maisua izan zen. Bertsolari handia zen, baina kantatzeko eran handiagoa". Bestalde, omenaldian parte hartu zuten bi bertsolariak, Gorrotxategi eta Narbaizak Otaba jaietan giro paregabea jarri zuten bazkal ostea animatuz. Reyes Azkoitia,

handiko jaiak direla azpimarratu zuten. Guztira, 60 bat lagun elkartu ziren elizpean antolatutako sagardotegian. Lutxurdio eta Aitziber trikitilariek giro paregabea jarri zuten bazkal ostea animatuz. Reyes Azkoitia,

Egileorren koinata, hunkitura zegoen. "Niretsat koinatua baino gehiago izan da, oso genuen maite denok. Bertsolari ona eta gozoa. Eguneroko bizitzan bertsotan aritzen zen eta pozgarria zen berarekin egotea". Otaba jaien balorazio oso positiboa egin du. "Giro paregabea dago auzotarren artean. Astelehenean dugu egun garrantzitsuena. Izan ere, erretilratuen omenezko meza, bazkaria eta erromeria berezia egingo ditugu". Nabarmendu nahi izan du ere oso berezia izan zela domekan egindako bazkaria elizpeko sagardotegian.

Juan Kruz Mendizabal Elosuko apaizak ere hitz onak besterik ez zituen izan *Egileor* gogoratzeko orduan. Mendizabalek urte betez ezagutu zuen bertsolaria, baina oso gertuko zela adierazi du. "Oso gizon ona eta apala zen. Hitzez laburra, baina gizon fina". Bestalde jaiak paregabeak direla azaldu du eta auzotarren jarrera ezin hobe dela. "Umerez betetako jaiak dira. Festa giroa paregabea da eta auzotarren parte hartheza oso handia. Bergarati ez ezik, Urretxu edota Zumarragatik ere etorri dira Otaba jaiak ospatzera. Elizapean egin dugu aurten gainera bazkaria eta oso gustura egon gara. Astelehena egun handia da ere. *Egileor* gogora ekarriko dugu meza nagusian eta auzoko erretilratuei ere omenaldia egingo diegu. Goizetik gauera arte ekintza ugari daude".



JOSETXO ARANTZABAL

Jabier Muguruzak diskoa aurkeztu zuen

Jabier Muguruzaren *Koplizeak* diskoa zuzenean entzuteko aukera izan zen Amaia Antzokian zapatuan. Angel Unzu gitarran eta Mireia Otzerinjauregi kantari izan zituen lagun Muguruzak. Kontzertu intimoa eskaini zuen. 30 lagun inguru joan zen kontzertura, baina ikus-entzuleak gustura gelditu ziren Muguruzaren emanaldiarekin.

LATZEN > HELLMUGA CD/DVDAREN AURKEZPENA

Latzen taldeak atzo aurkeztu zuen CD/DVDA lagun artean Oñatiako Aker tabernan

CD/DVDaren aurkezen ofiziala martitzenean, egingo du talde oñatiarrak 11:00etan Bilboko Elkar Megadenden

MAIDER ARREGI > BERGARA
Atzo, domekan, Latzen taldeko kideak Oñatiako Aker tabernan izan ziren *HellMuga* CD/DVDA aurkezten. Lagun artean egin zuten aurkezpena. Material berrian, otsailean Eskoriatzan grabatutako zuzeneko kontzertua eta bi dokumental ikus daitezke; bata garai zaharrekoa eta bestea gaur egungo. Garai bakotzeko argazki galeria bana ere badago. Uda partean kontzertuak emango ditu Latzenek CD/DVDA aurkeztek jendaurrean.



Latzenek egubakoitzean Errekaldeko jaietan joko du.

GOIENKARIA

ERREKALDEKO KONTZERTUA

Maiatzaren 30ean, egubakoitzean, hasiko dira Oñatiako Errekaldeko jaiak. Egubakoitzean kontzertuak izango dira doan eta Latzen zuzenean ikusteko auke-

ra ederra izango da. Oñatiarrekin batera, Anestesia, Discipulos de Dionisos eta Los Cretinos taldeak arituko dira. Kontzertuak 21:00etan hasiko dira Errekaldeko plazatxoan.

Goienkaria

ASTELEHENeko
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Ekaineko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

CANON KAMERA

EROSKI
zurekin



Bidali AG KAMERA 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA

skunkfunk



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

ZIRA + KAMISETA

EKFB
Euskal Selekzioa



Bidali AG ZIRA 5533 zkra

AGko HARPIDEDUNENTZAT SOILIK

Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitez! Tel.: 943 08 10 50

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**ASTILLERO JATETXEEAN BI
PERTSONARENDAKO BAZKARIA**

Zozketan sartuko dira: 08-05-19tik 08-06-04ra jasotakoak



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEza dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haien zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

ASTE BUKAERA...

Rebeka Überarekin



Rebeka Übera, bost urteko Unax, eta urte bateko Janitz semeekin, Elgetako Maala parkean.

JOSETXO ARANTZABAL

"Bost urteko seme Unaxen arabera antolatzen ditut aste bukaerak"

Astean zehar, egunero joaten da Donostiara, Gipuzkoako Batzar Nagusietara lan egitera

Lanbidez irakaslea da, eta lanpostua, Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolan du

MIREIA BIKUÑA > ELGETA

Rebeka Übera (Elgeta, 1972) Aralarreko zinegotzia da Elgetako Udalean, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea eta bozeramailea. Lan horiek egiten ematen ditu astelehenetik egubakoitzera arteko ordurik gehienak. "Egunero Donostiara joaten naiz Batzar Nagusietara, eta ordu asko ematen ditut bertan. Gainera, Elgetako zinegotzia naizenez, Udalean ere lanak egin behar ditut. Egia esan, aste gehienak oso antzekoak dira niretako", esan digu. Rebeka Überak bi seme ditu: bost urteko Unax eta urte bateko Janitz. Etxetik kanpo hainbeste ordu egiten dituenez amaren laguntza ezinbestekoa du. "Amari eskerrak egin dezaket egun dudan lana. Bera arduratzan da semeetaz. Dena den, oso gogorra da, emakume batek bere lana egin ahal izateko, beste emakume batek, nire kasuan amak, umeen ardura izatea".

ZAPATUETAN, IGERILEKURA

Autoan asko ibiltzen da astean zehar. "Kilometro dezente egiten ditut. Horregatik, lasai gidatzent dudan horietako naiz". Gehie-

netan A-8 autobidea erabiltzen du Donostiara joateko, eta batzuetan berandu iritsi da lanera, istripuren bat egon delako auto-ilarak sortzen direnean. "Donostiaro autobidean, ia egunero daude istripua eta parean tokatu ezkerro, akabo! Gainera, geroz eta auto gehiago dago, eta horrek arazoa askoz gehiago zaitzen du", esan digu Überak. Autoan itxaron beharra duenean, edo bidaiaaren

bat egiten duenean, irratia piztuta eroaten du. "Berdin zait zer entzun. Albistegiak entzuten ditut nire lanak horixe eskatzen didalako, baina musika entzutea ere gustatzen zait". Autoan berak agintzen du, eta esan digu umeendako musikariak ez duela jarritzen. "Ez dut pailazoen musikariak. Hasieratik oihu ziren irratia entzutera, eta ez dute beste ezer eskatzen".

Aste bukaerak iristen direnean, autoa alde batera uztea atsegina du, eta semeei begira antolatzen ditu zapatuak eta domekak. "Astegunetan oso berandu iristen naiz etxera, eta denbora gutxi egoten naiz semeekin. Hortaz, aste bukaerak, seme zaharrenaren arabera antolatzen ditut". Zapatueta ohitura bilakatu da Bergarako igerilekura joatea. "Agorrosinera joaten gara zapatu guztietan. Baina, beste plan batzuk ere egiten dugu: mendira joaten gara, eta eguraldi ona egiten duenean, hondartzara. Una-xi asko gustatzen zaio hondarraren jolastea". Horren harira, ez du planik egin abuztuko oporretarako, baina mENDIA eta hondarria uztartuko dituela esan digu.

"Elgetan bizi naiz, eta ez nuke ezergatik aldatuko: bizitza asko duen herria da"

Rebeka Übera Elgetan jaio zen, eta bertan bizi da egun. Herri txikia da, eta askotan autoa hartu behar izaten du. Dena den, oso garbi zuen bertan bizi zela. "Ni elgetarra naiz, eta nire kontura bizitzera joan nintzenean ez nuen zalantzakirik izan bertan geratzeko. Elgeta ez nuke ezergatik aldatuko. Herri txikia eta lasai da. Baina ere berean, bizitza asko duela esango nuke, besteak beste, kultura eta kirol ekitaldiak, eta zine emanaldiak izaten ditugu". Espaloia Kafe Antzokia luxu bat dela uste du: "Espaloian antzerkiak, kontzertuak eta beste antolatzen dituzte. Guzti horrek asko aberasten du herria".

Elgetatik irteteko, baina, autoa hartu behar da derrigorrez. "Horixe da hain justu, Elgetak duen txarrena: astean zehar hainbat kilometro egin ondoren, autoa alde batera uztea gustatzen zaigunoi, Bergarara edo Arrasatera joateko autoa hartu beharra izatea".

LANBIDEZ, IRAKASLE

Rebeka Übera maisutzan diplomatura da, Heziketa Fisikoan eta Haur Hezkuntzan, eta bere lanpostua Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolan du. "Orain liberatuta nago. Politika eta irakaskuntza atsegina ditut, eta badakit, etorkizunean eskolara itzuliko naizela. Baina, orain, buru-bela-ri nabil Batzar Nagusietan".

gazte zerbitzuak

IKASTAROAK

> **2008ko Kutxa Ikasgelak.** Kutxasocial. Ingurumena, dantza, gimnasia, lorenzaintza, zaharberritzea, argazkigintza, makillajea, yoga eta abarrei buruzko ikastaroak Gipuzkoako hainbat herrian. Epea: maiatzaren 29a.

LEHIAKETAK

> **Iparragirre Saria 2008.** Urretxu eta Zumarragako Udalak. Poesiako Iparragirre Literatur saria. Gaia askea. Epea: irailaren 26a.

> **Argazkilatza.** Kirogi Fundazioa. VII. Kirol Argazkien Lehiaketa. 18 urtetik gorako afizionatu edo profesionalentzat. Epea: urriaren 27a.

LANA

> Informatika eta Teknologia

Arduraduna. Eusko Ikaskuntza. Informatika eta Teknologia Arduradunaren lanpostua betetzeko deialdia. Epea: maiatzaren 30a.

> **Udako Ekintzetako Begiraleak.** Gipuzkoako Gazte Informazioa. Begiraleen laneskaintzen informazioa: www.gipuzkoagazteria.net/uda.

> **Iturgina.** Oiartzungo Udal. Oiartzungo Udalean iturgin lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: maiatzaren 29a.

> **Etxez-etxeko Laguntzaileak.** Oiartzungo Udal. Oiartzungo Udalaren etxez-etxeko laguntzaileen bi lanpostu betetzeko lehiaketa-oposizioa. Epea: maiatzaren 28a.

BEKAK

> **Ikerketa.** Durangoko Arte eta Historia Museoa. Krimenaren historiarekin esparruko ikerketa proiektuak egitea, V. mendetik XVI. mendera arteko kronologiei arreta berezia eskainiz. Epea: ekainaren 7a.

EKINTZAK

> **Antzerkia.** Donostiako Udal. XX. Gazteen Antzerki Topaketa. Hainbat ikuskizun hilabete amaiera bitartean. Informazio gehiago: www.donostia-gaztea.org



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ÖÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitzak salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldetza, egongela, bi balkoi eta trasteleku. Garajearekin. 687 11 21.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Salztekopresarekin. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai Otalora Lizenziaduna kalean. 74 metro koadro. Igogailu eta atari berriak. 204.344 euro. 636 58 98 76.

Arrasate. Otalora Lizenziadunarentzako duplexa salgai. Bilogela, bi komun, egongela, sukaldetza eta 20 metro koadroko terraza. 13 urteko eraikina. 696 79 43 89.

Bergara. 75 metro koadro. Bigarren solairua. Hiru logela, trasteleku eta arrapak esegitzeko. Terraza eta barbakao. Aire giroa. Bi apartakalekurekin. Eguzkitsua eta leku lasian. Berrieta eta egoera onean. 216.000 euro. 943 76 07 50.

Bergara. Basalgo auzoan basearena salgai, Iursaldekin. 610 73 65 40 edo 943 76 19 28.

Bergara. Baso-saila salgaiegora oneandagoen 60 metro koadroko txabolarekin. Errekataxo inguruan. 657 79 53 62.

DEBAGUNE ELKARTEAK LANGILE BAT BEHAR DU

Eskaintzen da:

- Egun erdiko lana, arratsaldez.
- Eskatzen da:**
 - Euskara maila alta
 - Euskalgintzan eskarmendua izatea.
 - Gida baimena eta autoa izatea.
 - Harremanetarako erraztasuna.

Eskerak debagune@euskalerria.org posta elektronikora bidali ekainak 4 baino lehen.

ETXE AGENTZIEN ATALA



INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieto 80 m². Berritua. Garabararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukera.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieto 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Azkaruntu 69 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
- San Lorentzont etxe berriak

Arrasate:

- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugal 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

Antzuola:

- Buztintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi. Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexa eta adosatuak.

Eskoriatza:

- Baserria. Bifamiliarra. Berria.

Oñati:

- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortu.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

Soraluze:

- Rabal. 64 m². Berritua. Eguzkitsua.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikular zein profesionalen astebea baino gehiago argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

ematen da errentan udarako. Valdelagran. 70 m². Bi terraza (bat handia). Hondartzako bigarren ilaran. 605 43 29 31.

Granadako Alpujarran natura ingurune paregabea zortzi lagunendako etxeen errentan. Terrazahandia ikuspegiederra. Prezio interesgarria. Argazkiak hemen: www.blogak.com/losmonteros. Harremanetarako: jasonemendizabal@euskalnet.n et edo. 943 79 42 33.

Jaca. Apartamentua errentan uda garaia. Bost lagunendako. Herri erdialdeko urbanizazioan. Igerileku eta garajea. 665 72 29 99.

Peñíscola (Castello). Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bikote arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan. 687 98 43 64.

Arrasate. Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 657 72 84 12.

Bergara. Etxebizitza hartuko genuke errentan familia baten dako. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

Bikote gaztea. etxebizitza errentan hartzeko prest. Bergara, Antzuola, Soraluze edo Oñatin. 663 46 93 60 edo 660 47 58 58.

Debagoiena. Biedo hiru logelako etxeak errentan. Presazkoa da. 617 88 20 93.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko bi edo hiru pertsona behar ditu, unibertsitate ondoan. 636 43 61 26.

Arrasate. Pertsonabat beharda egoera onean dagoen etxeak osatzeko. 616 05 97 92.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje ixta ematen da errentan ibargari kalean. Deitu telefono honetara: 627 90 74 48.

Bergara. Garaje ixta errentan ibargari kalean. Boni Laskurain plazan. Auto bat edo birentzat. Deitu telefono honetara: 677 91 68 38.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da etxearen garbiketa lanak egiteko. Egunean bi ordutarako. Deitu telefono honetara: 649 66 49 85.

Leintz Gatzaga. Pertsona bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko eta txeko lanak egiteko. Autoa ezinbestekoa. Deitu telefono honetara: 607 49 83 50.

ARETXABAleta

Zerbitzaria behar da tabernarako.
635 73 27 74

ARETXABAleta

Aste bukaeratan lan egiteko zerbitzaria behar da.
647 05 42 75

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. First titulua duen ingles irakaslea behar dut. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 40 54.

Debagoiena. Inteligentzia artifiziala eskola partikularrak hartuko nituzke udan. 652 70 49 10.

502. EMAN

Eskoriatza. Unibertsitateko ikasleak lehendakariak ematen ditu, uztalera arte (barne). 600 84 12 97.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW R 850 R motorra salgai. Hiru maletarekin, ABS, pantalla eta esku babeslek. 44.000 km. 6.000 euro. 688 62 00 04.

Elbarrientzat egokitutako auto automatikoa salgai. 606 72 04 63.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Pointer arrazako txakurra salgai. Jai berria. Ekin erdialdean emateko. 635 20 18 56.

703. EMAN

Katakumeak oparitzen ditu. 943 78 05 13.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Baxu elektriko salgai. ESP LTD TA 600 Tom Araya. Beltza. La berria. Funda eta guzti. 650 euro. Jon. 609 41 78 97.

Bilkientzako motxila salgai. Weego Twin modeloa. Oso ondo dago. Lehen egunetik 6 hilabete batez dituzten artean ibiltzeko. Edozein lekutan lasai asko ibiltzeko. 619 92 91 18.

Errepideko bizikleta salgai. Egoera onean eta oso merke. 120 euro. Iñigo. 656 78 17 28.

Errepideko bizikleta salgai. Gutxi erabilera. Emakumea edo etxeak tabernarako gertu. Orduta egondu lituzke. Deitu ezazu telefono honetara: 645 72 58 41.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduta edo bertan bizi oso egiteko gertu nago. 679 13 74

astea GOITBn

Astelehena, 26



> 'Harmailatik' saioan hainbat kirol kontu
21:15

Aizkorriko maratoian gertatutakoak eskainiko dituzte eta baita Oñatiko VI. Herri Lasterketan jasotakoak. Horiek eta gehiago, 21:15ean.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea. Ttipi TTa-paren eskutik.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Berbaire.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazkiak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ikusten.
18:15 Teknopolis.
18:45 Berriak.
19:15 Animalia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Harmailatik.
22:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 27



> Gastronomia, euskaldunen eskutik
22:15

Lehengo eta oraingo gastronomiaz jardungo dira euskaldun nagusiak. Bien arteko konparazioa egiteko aukera aparta beraz, GOITBn.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 Animalia.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Euskaldunok hizketan.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 28



> Oñatiko Gorputzi eguna Goiena Telebistan
21:47

Oñatiko Gorputzi eguna eskainiko dute eguztenean: besteak beste San Migel eta apositolak nola janzen dituzten, eta beste hainbat kontu.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 Animalia.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Animalia.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bividunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Euskaldunok hizketan.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 29



> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan
22:15

Musika zaleok, egunero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskainza zabala izango duzue.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Zaharrak berri. Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Korpus eguna.
14:45 Berriak.
15:15 Euskaldunak hizketan.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ur eta Iur.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Kirolari.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazkiak.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:45 Jazzmina.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitzta, 30



> Arantxa Gurmendi aktorea 'Ilunpean' saioan
22:15

Ilunpean saioan izango da Arantxa Gurmendi aktorea. Ez Dok Amairuko sortzaileetariko bat, abeslaria izan zen. Aktore lanetan ere aritu da Goenkalen.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuistik; hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri. Ilunpean, eta sexología kontuak, bestek beste.

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuistik; hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri. Ilunpean, eta sexología kontuak, bestek beste.

10:00 Asteko gainbegiratua. 10:00 Asteko gainbegiratua. 10:00 Asteko gainbegiratua.

10:00-12:00 Igo Autobusera. Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Ilunpean. Teknoberriak. Igo Euriborrera! Kantaka. Zaharrak Berri. Astearen errepasoak. Zozketak. Zorion agurrik (parte hartzeko): 943 25 05 05 (irratia@goiena.com).

11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratiko albistegia. 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak. 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

arrasate irratia

FM 107.7

> 'Gainsbourg gainbegiratuz' diskoa Arrasate Irratian 10:30

Bi disko dituzte Arrasate Irratian entzuleen artean zozkentzako. *Gainsbourg gainbegiratuz* lana, hain zuen ere. Ez galdu aukera eta animatu zaitez parte hartzea. Hori guztia 943 25 05 05 telefonoan.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuistik; hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri. Ilunpean, eta sexología kontuak, bestek beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera. Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Ilunpean. Teknoberriak. Igo Euriborrera! Kantaka. Zaharrak Berri. Astearen errepasoak. Zozketak. Zorion agurrik (parte hartzeko): 943 25 05 05 (irratia@goiena.com).

11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratiko albistegia. 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak. 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Lierni Agirrezabala
Kazetaria

"Astearte baten proposatu zidaten eta ostegunean irten ginen bertara"

MIREN ARREGI > ARRASATE Billabonan jaiozenetabertan bizida Lierni Agirrezabala. 2002an amaitu zituen ikus-entzunezko Komunikazioa Lizentziaturako ikasketak eta ordutik dihardu ETBn lanean. Lehenik, bekadun egon zen albistegietan, gero langile moduan, eta albistegiak utzi eta hurrengo egunean *Kalaka* sainorako deitu zioten.

Albistegietan kazetari izatetik KalakaSaiora beraz.

Bai, egun baten albistegietako kontratua amaitu zitzaidan eta hurrengo egunean *Kalaka* sainoan nengoen. Lana desberdina da batez ere erritmo aldetik. Albistegietan egunean eguneko atera behar duzu eta erritmoa azkarragoa da. Alde horretatik, *Kalaka*-n erritmo lasaiagoa daramat. Hori horrela izanik, emaitza ere hobea izan daiteke. Beste alde on bat ere badu, eta da platoan zuzenean egoteko aukera eskaintzen duela, eta zuzenekoan asko ikasten da.

Kosovon izan zinen independentzia aldarrikatu zenean. Zer sentitzen da halako zerbait proposatzen ditzenean?

Gogoan dut bideo bat muntatzen ari nintzela, zuzendaria gelan sartu eta esan zidanean: Kosovo joango zinake? Bai ala ez. Ez galdu zertara, zuk eman erantzun bat. Berehalera erantzun nion baitetz. Gero blokeatura gelditu nintzen, ezin izan nuen egun guztian lanik egin. Hori astearte baten izan zen eta ostegunean Kosovo joan ginen.

Zerk harritu zintuen gehien?

Jendea zein pozik zegoen. Herri batetan gertatu zitzaiguna horren era-kusle da. Herri hura zubi batek banatzen zuen; alde batetan bizi ziren albaniarrek eta bestean serbiarrak. Herri hartatik bueltan, gurpila zulatu zitzagun eta tailerrera eraman genuen autoa. Ez zigun ezer kobrautu, horrek han suposatzen duenarekin.

Korrespondsal lana gustatu zitzaitzun?

Bai, baina hemen ere gustura nago. Kanpora irteteko proposatuko validate ez dakit... Ezezagunak asko erakartzen nau, baina momen-tuan momentukoa.

asteko hitzorduak

Erakusketa



BERGARA

> Bergara Hiria lehiaketako argazkiak erakusketa jarri dituzte

Aroztegi aretoan dago argazkiak ikusteko aukera; astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00. Irudian, Iker Iglesias aretxabaletarra-ren Maximo argazki saritua.

Hitzaldia



ELGETA

> Ume-soldaduen gaineko hitzaldia egingo dute etzi, eguztenea

Mundumira jaialdiaren barruan, *Los niños soldado de Birmania* delako bideo-hitzaldia egingo du Atisha tibetar kultura elkarrekin, eguztenea, Espaloia antzokian, 19:30etik 21:00etara.

Zinema



ARRASATE

> 'Al otro lado' film saritu eta txalotua emango dute gaur Amaian

Fatih Akinen *Al otro lado* filma emango dute gaur, astelehena, 20:30ean; Cannesen gidoi onenaren saria irabazi zuen iaz. Alemanian eta Turkian, sei lagunen bizitzak elkarrekin gurutzatuko dira, topaketa eta harremanen bidez.

zorion agurrak



ARRASATE
Alaitz Etxebarria
Maortua
Maiatzaren 20an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



ARETXABAleta
Enara Zumarraga
Maiatzaren 20an. Etxeko printzesak 3 urte! Muxu handi bat Oier, Eñaut, aitatto eta amatxoren partetik.



BERGARA
Idoia Martinez Altube
Maiatzaren 21ean, 10 urte. Zorionak guraso eta anaia Aitzolen partetik.



BERGARA
Mikel Gutierrez
Maiatzaren 21ean, 10 urte. Zorionak guraso eta anaia Aitzolen partetik.



ARRASATE
Paulo Rozas Elizalde
Maiatzaren 21ean. Hi, Txo! Zorionak! Izan ongi eta ondo pasa zure egunean. Belarritik tira pilo bat eta besarkada handi bat. Arrasateko Zabaletaren partetik.



DEBAGOIENA
Hegoa Larrea
Igartua
Maiatzaren 29an 2 urte. Zorionak eta patxo erraldoi bat maite zaitugunon partez.



OÑATI
Joseba Zabalaeta Igartua
Maiatzaren 24an, 32 urte. Etxeko partez zorionak eta laztan handi bat. Ondo-ondo pasau eta urte askotarako!



OÑATI
Aitor Biain Navarro
Maiatzak 22an, 2 urte. Zorionak! eta patxo handi bat etxeko partez.



ARETXABAleta
Xabi Perez Gaztañaga
Maiatzaren 22an, 5 urte Xabi superheroik. Iker superheroien eta gainontzeko familiaren partetik zorionak eta patxo handi bat.



ARRASATE
Martxel Aranzadi
Maiatzaren 22an. Zorionak, Martxel! Ongi pasa zure egunean. Zazpi urte! Musu pila-pila etxeko Bingen, ama eta aitaren partez.



ARRASATE
Maddi Lakanza
Maiatzaren 23an, Zorionak tokallitx! Ondo-ondo ospatu-kou eguna ezta? Patxo pillaaaa!



OÑATI
Eñaut Zubia Fernandez
Maiatzaren 23an. Zorionak aita ama, Josu eta aitaiten partez zure 5. urtean.




ARRASATE
Ubane Madera
Maiatzaren 24an. Zorionak bi bider: bata urteak bete dituzulako, eta bes-tea, azkenean Berlin ezagutu dozulako!



ARETXABAleta
Madi Iturriastillo
Elkoro
Maiatzaren 24an, urtebete. Zorionak potxola eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
Iñaki Barrena Lete
Maiatzaren 24an, 2 urte betetzen ditu, bai mutiko handia. Zorionak etxeko partetik. Ea ondo-ondo ospatzenten dugun zure eguna.



ARAMAIO
Ane Arrizabalaga
Maiatzaren 24an, 7 urte. Zorionak politoi! Patxo handi bat, etxeko guztiaren partetik. Ondo-pasau!



ARRASATE
Aitor Iraeta Gutierrez
Maiatzaren 24an, 11 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



BERGARA
Miren Urra Elkoroiribe
Maiatzaren 24an, 9 urte. Zorionak etxeko partetik, bereziki Jone.



OÑATI
Garazi Zabaleta Kortazar
Maiatzaren 25ean, urtebete. Zorionak sorgintxo! Izeba Ainhoa eta familiko-en partez. Patxoak!



ARAMAIO
Izaro eta Juanan Aretxaga
Maiatzaren 25ean urtebetetzea. Etxeko partez zorionak eta patxo handi bana! Egun ona igaro deizuela eta urte askotarako!



ANTZUOLA
Julian Gezalaga Larrea
Maiatzaren 25ean Zorionak aittita! Betiko umorearekin jarrai dezazula beste hainbestean. Amama Mari Carmen, Ibon, Bihotza, Aitziber, Iñaki eta Julen.



BERGARA
Ander Oregi
Maiatzaren 25ean, urtebete. Zorionak etxeko partetik bereziki Maddi.



ARETXABAleta
Gaizka Lete Atxaga
Maiatzaren 26an, 5 urte. Zorionak etxeko denen partetik eta patxo handi bat.




BERGARA
Paula Arantzabal
Maiatzaren 26an, 15 urte. Zorionak familiaren partetik.



ARETXABAleta
Yanire Altube Iturriastillo
Maiatzaren 27an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Galder Bengoa
Maiatzaren 27an. Zorionak gure etxe-ko printzipio txikiari bere 4. urtebetetze-an, ama eta Ondarruko Aume eta atixtan partez. Zorionak txapeldun!



ARRASATE
Mirari Plazaola
Maiatzaren 27an. Zorionak pittin!! Zure laugarrun urtebetetzean, Palazioko osaba-izeben eta, batez ere, Joanes eta Garazi lehengusuen partez!



ARRASATE
Oihana Jausoro
Maiatzaren 28an. Zorionak tia Oihana! Zu bezain guapoak diren zure iloben partez. Patxoak!



ARRASATE
Lorea Belategi
Maiatzaren 28an, 3 urte. Arrasatetik etxeko guztiak zure hirugarren urtebetetzean zakukada bat patxo bidaltzen dizue, batez ere, Aratzek.



ARRASATE
Koldo Etxebarria Arregi
Maiatzaren 28an. Zorionak eta patxo handi bat. Bea eta Aitorren partez.



ARRASATE
Natali Martinez
Maiatzaren 28an Jakin Figo dagoeneko out dagoela, orain Ronaldo (Cristiano) eramatzen dela... Zorionak Nata! Uretxuko futbol talde!



ARRASATE
Alaitz Beltran de Heredia
Maiatzaren 28an, Zenbat lore udaberrian, zenbat kolore eta usain, eta guztien erdian zu, bakarra. Zorionak!



ARRASATE
Maximo Uribe Salgo
Maiatzaren 29an. Zorionak aita! aiteita! Egun ona pasa ta horrela segi. Patxo pila etxeko danon partez.



BERGARA
Aratz Domenech Iñarra
Maiatzaren 30ean, urtebete. Zorionak familiaren partez, bereziki Gorkaren partetik. Ondo pasa eta besarkada



ARETXABAleta
Libe Agirre
Maiatzaren 25ean. Urtetxo bat bete duzu "terremoto"! Musu handia zure lehen-gusu guztiaren partez eta aitapuntekon eta amapuntekon partez!



ARRASATE
Unax Urizar
Maiatzaren 26an 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi txiki-ko lagunen partetik.



ARRASATE
Leire Varela
Maiatzaren 25an 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi txiki-ko lagunen partetik.



BERGARA
Jon Davila Siller
Maiatzaren 24an, 12 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.

kuxkuxeroa



Larraitz Zeberio

Oñatin, aste burua honetan ere... festa

Duela pare bat urte ikusi nuen lehenengo Oñatiako Gorpuzti eguneko prozesioa. Lan kontuak tarteko, aurten gertuagotik eza-gutu dut. Egun benetan garrantzitsua da oñatiaren-dako. **Julen Kortabarria** dantzarien kapitainarendako, esaterako. Prozesioa ondo joan dela esan zidan. Urtetik urterera lasaiago egoten dela.

Aurten ere borondatezko alkohol-probak egin dituzte Oñatin. Bost euro garagardo edanda positibo emateko mugan gelditu zen **Maider Arregi** lankidea. Ondo dago


Antolatzaileek eskatu dute hurrengo urteetan maila handiagoko kantuak aurkezteko

neurria non daukagun jakiteko aukera edukitzea.

Bergarako jaiak joan ziren, baina gustura ikusi ditut San Joxepe elkarteko erretiratua. Omenaldia egin zieten, besteak beste 87 urteko **Teresa Muxika eta Antonio Maiztegi** senar-emazteei. Gertuko-en berotasuna sumatu zuten domekan.

Pozez txoratzen aurkitu nuen, halaber BTLSko entrenatzaile **Jose Luis Beitia**. Mailaz igotzea soilik ez, Bergarako taldeak Gipuzkoako txapelketako finalera txartela eskuratu zuen zapatuan.

Gauzak ez zaizkio hain ondo atera **Roberto Chiqui-luquaterri** Eurovisión lehiaketan. Zer uste zuten ba? Antolatzaileek esan dute, gainera, hurrengo urteetan maila altuagoko kantuak bidaltzeko.



Ondarrako Jaiak Antzuolan. Ondarra plazan jaiak ospatu dituzte aste bukaeran. Jinkana egin zuten zapatu eguerdian eta ume ugari hartu zuen bertan parte. Bizikletarekin duen trebezia erakutsi zuen bat baino gehiagok. Ekitaldi ugari izan dituzte. Nabarmenzeko zapatu gauean egindako afaria. Auzoan bizi direnak eta bizi izandakoak elkarte ziren mahaiaren bueltan. Afaloste girotseko, erromeria izan zuten.



Erromeria Bergaran. Barikuan erromeria saioa egin zuten Bergarako Muni-be Plazan. Dantza saioa eskaini zuten lehenengo herriko dantzariekin. Besteak beste, zinta dantza eta arku dantza egin zituzten. Kalejira batekin amaitu zuten euren saioa eta ondotik etorri zen erromeria. Trikiti doinuen bueltan asko izan ziren dantzan ikusi genituen bergararrak.



Erretiratuei omenaldia Bergaran. San Joxepe erretiratuen elkartean ekitaldi polita egin zuten atzo. Bertan, 87 urte bete dituzten erretiratu guztiak omen-du zituzten, tartean Teresa Muxika eta Antonio Maiztegi senar-emazteek. Lagun ugari izan zituzten ondoan. Opariak eta loreak jaso zituzten.

Borondatezko alkohol-probak Oñatin. Prebentzio Sailak eta Sasoia elkarteko antolatuta borondatezko alkohol-probak egin zituzten zapatu gauean Unibertsitate Etorbidean. Bigarren urtea da ekimena aurrera eramaten dutela eta aurtengoan ere 150 probatik gora egin dituzte. Proba egin eta positibo eman zutenei hainbat aholku eman zizkieten. Besteak beste, autoa hartzeko zenbat denbora itxaron behar zuten.

jaiotakoak



Markel Eguren Toledo

Bergara > 3,540 kilo. Maiatzaren 21ean. Gurasoak: Gurutze (Antzuola) eta Mikel (Bergara). Argazkian, Markel jaioberria, seaskan lo.



Ibai Saiz Carbonell

Arrasate > 3,810 kilo. Maiatzaren 22an. Gurasoak: Marijose (Sagunto) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Ibai jaioberria, aitarekin.



Udane Unamuno Jimenez

Aretxabaleta > 4,400 kilo. Maiatzaren 18an. Gurasoak: Tere (Arrasate) eta Josu (Arrasate). Argazkian, Udane amama Marirekin.



Unai Leo Cañamaque

Arrasate > 4,550 kilo. Maiatzaren 6an. Gurasoak: Yolanda (Arrasate) eta Carlos (Arrasate). Argazkian, gurasoekin.



Amaiur Gallastegi Agirreza

Bergara > 3,600 kilo. Maiatzaren 19an. Gurasoak: Leire (Bergara) eta German (Arrasate). Argazkian, Amaiur seaskan lo.



Beñat Elortondo Garro

Arrasate > 4,190 kilo. Maiatzaren 21ean. Gurasoak: Eneritz (Arrasate) eta Ander (Arrasate). Argazkian, Beñat jaioberria amarekin.



Izar Salazar Igartzabal


Oñati > 3,480 kilo. Maiatzaren 21ean. Gurasoak: Arantzazu (Oñati) eta Jorge (Oñati). Argazkian, Izar gurasoekin.



Lorea Larrañaga Balanzategi

Arrasate > 2,800 kilo. Maiatzaren 22an. Gurasoak: Marta (Arrasate) eta Aritz (Arrasate). Argazkian umea, seaskan.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Arantxa Gurmendi > Aktorea

"Rocka euskaraz egitea probokaziotzat zuten"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Goenkale telesailarenagatik ezaguena bada ere, Arantxa Gurmendi donostiarrak euskal antzerkigintzan eta musikagintzan buru-belarri dabil 60ko hamarkadatik; eta horrez gain, mundu osoan bidaiatu ahal izan du lanari esker.

Askotan iratzartzen zara gauetan, ideia bat burura etortzen zaizkulako?

Bai, batez ere idazteko prozesu baten nabilenean. Altxa eta apuntatu behar dut, beldurra ematen didalako hurrengo goizean ez oroitzeak. Inoiz amets oso bat arrapaldan idatzi izan dut... film labur baterako aproposa.

Amak eta biok umetan euskarra ikasteko aukera izan zuten, ezta?

Familia euskaldunekoak gara, eta ikastola klandestinoetan ibili ginen. Neuk Elvira Ziptriarekin ikasi nuen, bere etxean. Heziketa oso aurrerakoia ematen zuen, Frantziatik ekarritakoa. Euskaraz ikasten genuen auzoko umeok euskaraz jolastu eta bizi ginen. Ederra izan zen!

60ko hamarkadan Londresera jo zenuen...

Bai. Idazkari-ikasketetan Ingelesa ikasten hasi ginen eta irakasle batek esan zigun turistekin praktikatzeko. Hala egiten genuen, eta halako baten ahizpa eta biok animatu ginen Londresera joatera. Euskal Herrian eska-sia, errepresioa eta bekatuari beldurra zegoen, eta han beste mundu bat deskubritu genuen. Rock kontzertuak, mini-gonak... zer ez! Handik Carnaby street-eko *look-a* ekarri genuen, eta auzotarak zur eta lur! (barreak).

TEST-A

Herria: Donostia. **Adina:** 63 urte.

Ikasketak: Batxilerra, Idazkari-ikasketak, Ingelesa, Frantzesa, Antzerkia, Bikoizketa eta Eskrima. **Zaletasunak:** Argazkia, zinema, musika, bidaiatzeara eta pasatzea. **Zer amets bete duzu?** Asko. Ama izatea, eta musikan eta antzerkian aritztea adibidez. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Nikaraguaoko neska gazte batzuekin antzerki tailer bat egitea, eta idatzia daukan filma egitea.

Ez Dok Amairuren sortzaileetako bat izan zinen, eta gainera aire berria eman zenion...

Kataluniako eredua hartu genuen eta neu kide nintzen Jarrai antzerki taldea bultzatzailea izan zen. Lehenengo jaialdia prestatzerakoan konturatu ginen bakarlariak bakarrik zeudela. Hortaz, Imanol Urbietak zuzentzen zuen Zarauzko Euromar dantzalekuko orkestinarekin *La chica ye-ye* abesten jarri nintzen euskaraz.

Eta gerora, rockera pasatu zinen...

Bai. Ye-ye musika ez zitzaidan gustatzen. Gustuko neukan rocka eta rhythm&bluesa, eta hori egin genuen Biurriak taldearekin. 1969ra arte ibili ginen euskaraz abesten, eta kritika ugari izan genituen. Euskal sena galten ari ginela esaten zigutenean (barreak).

Lilatoiaren ama ere bazara...

1989an pentzatu genuen emakumeek eroso korrika egiteko lasterketa behar zela, eta gainera irabazlea emakumea izatea.



MUSIKA Aspaldi abeslaria izan zen, eta orain perkusioa ikasten dabil. I. BARANDIARAN

ai, ene!



Segurtasun tarte

Errepidean, segurtasun tarte gordetzea garrantzitsua da; are gehiago, aurreko autoak, erremolkean, kanoi bat badarama atzera begira; eta, zer esanik ez, "hau irakurri badezakezu, gertu zauden sei-nale" dioen kartela badu.

<http://www.nopuedocreer.com>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Apaiz ateoa

Hemen bizi naiz eta hementxe aurkitzen ari naiz nire bizitzaren arrazoia. Uda ondoren bi urte izango dira Bergarara etorri nintzela Tolosan, sei urte egin nituen. Donostian bes-te zortzi. Bi urte igaro nituen Madrilaren hona etorri aurretik. Gogoan dut Madrilgo apaiz batek gure herri honetan esan zidana, eliza lanetan ibiltze-ko aukera berririk ez zegoela. Bibliak esaten zuen erara, "hautsak astindu eta beste nonbaitera joan behar zela lanera", hemen hazia ernetzeko espe-rantzarik ez zegoela. Egia esan, pena eman zidan, apaiz ibili arren, apaiz ateoa zelako, federik gabea, Jainkoarenengana eta bera bezalako ez zirenengan konfiantza galdu-ta zuelako. Gizagaixoa..., apaiz ateoa!



Nik hementxe aurkitu dut fedea eta hemen-gengen, hemengoei esker eusten eta indartzen dut nire fede ahula eta eskasa. Aurreko larunbatean, Donostiarra Kaian ospatu nuen ezkon-tza batean. Atzo, berriz, Elosuko Otabetako meza-festa zoragarrian, gaur amarekin telefo-noz hitz egitean, oraintxe liburu berri bat estrei-natzean. Gauza xumeenetan, hemen eta gaur aur-kitzen dudalako apal eta errespetuz, aske eta suspertziale Jainkoa, nire eta gure ondoan fedea eraginez, utopia berriak ametsaraziz, hemengoa eta gaurkoa maitatzeko eta esti-matzen ikasteko bideak urratuz. Apaiz lagun, zure alde eskatzen dut bihotz berri zaitezen...

eguraldia



MAXIMOA

+20

MINIMOA

+10

Goiza lasaia izango da, baina arratsaldean ekaitzetara joko du berriz ere. Haizea hegoaldetik sartuko da, indar gutxirekin.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena **KODEA**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea	KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea	KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea	KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea	KODEA

5767 zenbakira SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

DEPOR.IZENA. OSAUNA. IZENA. ZENBAKIA	ANOETA1	MENDI2	BELAK	ZORI3	IKURRI3	POPATIK1	AIZKORAK	ADARIAK
E ALONSO 17	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	popatik hartzera	smsoinu	smsoinu
IPURUA	ARCO	SADARI	ZORI1	ZORI4	KALABERA1	POPATIK2	EGUZKILORE3	ELORAN
ARANBURU 11	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu
TXEDEIRIA 17	IPURUA	EIBARPOOL	TOPA	TITULUA	MUSKARIA	SATANAS	ARRANAK	IDIAK
WEBGUNEAN www.smsoinu.com	ARANBURU 11	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu	smsoinu

OHARRAK

1. **BATERAGARITASUNA:** Registratu zure poltsikoko telefonoa bateragaria den eskaientzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari. Berian jasoko duzu beharreko duzen informazio guztia.

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharreko da GPS sistema aktibatzea izatea. GPS sistema aktibatzeareko, jar zaitzez zure hornitzalearekin harremanetan. Alza ematea doan eta ekoiztza bakanik ordaindu beharreko duzu. Kasu guztiak dela eta GPS sistemaren alza ematea doan dira.

* Euskatel deitu 900 02 00 02 telefonora. / Vodafone: deitu 123-ra. / Movistar deitu 609-a.

3. **ZALANTZAK:** Ez doen zalantza duzu, jam gurekin kontaktua: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurriara egin ditzaguen abesti eta logoa. Webgune honean kalteratu eta erabiltsaileek eskura dezakela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.